

Pentsamendu kritikoa,

garapenez haratagoko begiradak

2. zk.
Bestelako feminismoak eta bizitzaren iraunkortasuna

FEMINISMOS OTROS

Sostenibilidad de la vida

Bestelako feminismoak eta bizitzaren iraunkortasuna

1 FEMINISMO DEKOINONIALA
UNA PROPOSTA ANTIRACISTA Y EN RESISTENCIA TRUENTE A "LV MODERNIDAD"

Yuderkys Espinosa
Una frase. Escribir un VOCABULARIO dentro del feminismo.

LA VOZ DE LA PRODIGEN DO
• Aprender de los otros
• El privilegio que me da un rol base que me da el lenguaje de la otra parte
• La lucha por la vida
• ¿Por qué somos feministas OTROS?

ICEBERGA DINAMITATZEN
CLAVES PARA CAMBIAR EL SISTEMA DESDE UNA ECONOMÍA FEMINISTA TERRITORIZADA

EMAKUME ZURI FEMINISTA APUNTATU ERUZETA

TEORIMA FEMINISTA HAN ETA HEMEN
• Teoría y práctica
• Poder y resistencia
• Lucha por la vida
• Resistencia de la vida
• Teoría y práctica
• Poder y resistencia

ESPERIENTZIEN MAHAI-NGURUA
... EN COLECTIVOS SOCIALES FEMINISTAS PUBLICAS.

e Ndjom
MINAS

Laura Vega
BRISA BIA AUKANTA SUNA
• Jernak Kautay
• ...

TOKIAN TOKIAN
APUNTAR

Tika Moreno + Amaia Pérez Orozco
FUERZA FEMINISTA POLITICA

INTER

KAPITALISMO ARRAZISTA KOLONIALISTA HETEROPATRIARKALA HEGEMONIKOA

Argitalpen hau Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren laguntzarekin egin da, *Garapenari buruzko pentsamendu kritikoak: teoriak, ikuspegiak eta esperientziak* (2018) proiektuaren esparruan. Testuen edukia Hegoaren erantzukizuna da, eta ez du nahitaz GLEAren iritzia adierazten.

Diruz laguntzen du:



Edita:



UPV/EHU

Zubiria Etxea Eraikina

Agirre Lehendakariaren etorbidea 81

48015 Bilbo

Tel.: 94 601 70 91 • Faxa: 94 601 70 40

UPV/EHU

Arabako Campuseko Liburutegia

Nieves Cano kalea 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 01 42 87 • Faxa: 945 01 42 87

UPV/EHU

Carlos Santamaria Zentroa

Elhuyar Plaza 2 • 20018 Donostia-San Sebastián

Tel.: 943 01 74 64

www.hegoa.ehu.eus

2. zerbakiaren koordinazioa:

Bestelako feminismoak

eta bizitzaren iraunkortasuna

Yeni García, Leticia Urretabizkaia

Azaleko irudia:

Maite Mentxaca Tena

Lege-gordaulua: BI 01760-2020

ISBN: 978-84-16257-61-4

2.zk., 2020

Diseinua eta Maketazioa: Marra, S.L.

Zure iritzia interesatzen zaigu: Aldizkariari eta/edo haren edukiari buruzko zure iritzia helarazi nahi badiguzu, honako galdetegi bete dezakezu: <https://forms.gle/4ZMKWmPRLRnayu5w6>
edo zuzenean helbide honetara idatzi: yenifer_garcia@ehu.eus



Agiri hau Creative Commons-en lizentziapean dago. Baimena duzu lan hau kopiatu, banatu eta publikoki hedatzeko, betiere, kontuan hartuta lanaren kredituak adierazi behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza-xedetarako erabili. Ezin da lan honetatik eratorritako obrarik aldatu, eraldatu edo sortu. Lizentzia, osorik: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0>

Pentsamendu kritikoak,

garapenez
haratagoko
begiradak

2. zk.
Bestelako feminismoak
eta bizitzaren iraunkortasuna

1. Editoriala	<u>4</u>
<i>Yeni García eta Leticia Urretabizkaia</i> Atzamarra zaurian	
2. Elkarrizketa	<u>6</u>
<i>Yuderkys Espinosa Miñoso</i> Feminismo deskoloniala eta dena birpentsatzeko erronka	
3. Mugimenduan	<u>12</u>
Afroféminas	12
Gure izate bakarra erresistentzia da <i>Suzanne Ndjom</i>	
Osatze feminista	15
Gorputz-gogo eta identitateak osatu eta osotze prozesuak ahalbideratzeko proposamen politiko bat <i>Osatze feminista lantaldea</i>	
Coòpolis	20
Saiakera-akatsa ekonomia solidario, feminista eta antiarrazista baterako <i>Elba Mansilla, Luz Helena Ramírez eta Tariana Salazar</i>	
Euskadi-Bakea eta Elkartasuna eta Sacha Supai Bioteknologiako Institutu Kitxua	23
Nola landu feminismo dekolonialaren ikuspegia garapenerako kooperazioan: esperientzia praktikoa eta gogoetak <i>Laura Vega eta Rosa Vacacela</i>	
4. Pentsamendua kiribilean	<u>26</u>
Izozmendia dinamitatzen ekonomia feminista lurraldetu batetik <i>Tica Moreno eta Amaia Pérez Orozco</i>	26
Begirada interseksionalak. Bizitza bizigarri bat imajinatzeke tresnak <i>R. Lucas Platero</i>	33

Atzamarra zaurian

Yeni García eta Leticia Urretabizkaia



Irudia: Hegoa.

4

Bestelako feminismoekin hitz egin al dezakegu Unibertsitatetik, Akademiak erreproduzitzen dituen logika kolonialak, klasistak, arrazistak, patriarkalak eta kapazitistak (besteak beste) kontuan hartuta? Beste feminismoak hegemoniarekin apurtzea lortzen duen zerbait gisa errebindika ditzakegu, ala bestetasunaren ideia pribilegiotik erreproduzitzen jarraitzen dugu? Bizitzaren iraunkortasunaren inguruan artikulatutako feminismoek, orain arte ezagutzen ez den nazioarteko mobilizazioa lortu dutenek, balio al digute pribilegio eta zapalkuntzek modu desberdinean zeharkatutako emakumeoi elkarrizketa-espazio gisa? Zergatik Euskal Herrian eta Espainiako estatuan mugimendu feminista masiboki altxatzen da *La Manadaren* zigorraren aurka, eta ez du hori egiten Doñana 1998 SL enpresari Huelvan langile marokoarren aurkako sexu-jazarpenagatik jarritako salaketan kasuak artxibatzearen aurka? Nola eraiki ditzakegu Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministetan aipatu genituen zubiak? Zer egiten dugu bakoitzari gure posiziotik “mugitzen” zaigunarekin?

“Emandako” feminismoa, planetan zehar nobalabaiteko errekonozimendu eta hedapen maila lortu duen hori, alegia, kritikak jasotzen ari da duela urte batzuetatik hona modernitate eu-

rozentatuaren oinarri ideologikoak zalantzan ez jartzeagatik, eta, batez ere, arrazakeriarekin eta kolonialitatearekin duen konpromisoagatik. Feminismoaren hedapen-boterea puntu gorenera iritsi dela dirudien une honetan, martxoaren 8ko nazioarteko grebekin lotuta, gero eta indar handiagoa hartzen ari dira gure feminismoak ez dituela ordezkatzeko oihukatzen duten emakumeen ahotsak, eta, gutxienez, zer pentsatu ematen digute. Baita kezkatu samar ere. Batzuetan, haserre.

Horregatik, *Garapenari buruzko Pentsamendu Kritikoak: teoriak, ikuspegiak eta esperientziak* proiektuan, feminismoek garapenari buruz zer zuten esateko galdetzean, hainbat feminismotatik jasotako erantzunak entzun nahi genituen, nahiz eta bagenekien planteatzen ari ginen galderak irekita zeuden zaurietan sakonduko zutela.

Badakigu egin ditugun galderak osatugabeak direla, gure ikuspegi propioetik datozela: Euskal Herriko emakumeak, esparru akademikoarekin eta mugimendu feministarekin lotura maila ezberdina dutenak, heteronorma eta lan-prekaritatearen onarpen maila ezberdina dutenak, marka arrazializaturik eta dibertsitate funtzionalik gabeak, beste bazterkeria- eta priba-

legio-kategorien batzuen artean. Hortik abiatuta, gure ikuspegia ez da inpartziala, kokatua baizik, ez da osoa, eta ez du izan nahi. Gure asmoa atzerapauso bat ematea izan da, askotariko ahotsek dagokien Unibertsitatearen espazioa okupatu ahal izan dezaten eta gure galderak planteatzean entzuteko jarreran jar gaitezten. Horrek erantzun deserosoak onartzea ekarri du. Are, erantzun batzuek ikusarazi digute galdera horiek, batzuetan, ez zirela egokienak nahi genuen elkarrizketan aurrera egiteko.

Honetaz guztiaz eztabaidatu dugu sei saio bertuetan, 2019ko ekaina eta abendua bitartean. Horrez gain, 2020ko otsailean antolatu genituen *Bestelako feminismoak eta bizitzaren iraunkortasuna* jardunaldietan ere gauza bera egin genuen. Eta eztabaida horietatik abiatuta eraiki dugu zenbaki monografiko hau.

“Elkarrizketa” atalean, Yuderlys Espinosa costarricar pentsalari eta aktibista eta Latinoamerikako Ikasketa, Prestakuntza eta Ekintza Feministako Taldeko (GLEFAS) kideari elkarrizketa eginez hasi dugu. Abya Yalako feminismo deskoloniala aurkeztuko digu, mendebaldeko feminismo zurriari egiten dion kritika ulertzeko.

Ondoren, “Mugimenduan” atalean, feminismo deskolonialaren planteamenduak lurreratzen laguntzen duten lau esperientzia aurkezten ditugu. Afroféminas online komunitatearen antolakuntza esperientziarekin hasiko gara, zeinean Suzanne Ndjom ekintzaileak afrofeminismoaren barruan egindako borrokari buruzko bere gogoetak partekatzen dituen. Osatze feminista dator ondoren; artikuluan, sendabide feministarako proposamena zein den azaltzen digu, Abya Yalatik datozen sendabide feministaren proposamenekin elkarrizketan eraikia eta Euskal Herriko testuinguru historikoan kokatua. Hirugarrenik, Coòpolis kooperatibak Ekonomia Sozial, Solidario eta Antiarrazistaren arloan Katalunian izandako esperientzia ezagutuko dugu, bertako hiru kideren eskutik: Elba Mansilla, Luz Helena Ramírez eta Tariana Salazar. Azkenik, Euskadi-Bakea eta Elkartasuna GGKEko Laura Vegak eta Ekuadorko Sacha Supai Bioteknologiako Institutu Kitxuako (IQBSS) Rosa Vacacelak feminismo deskolonialaren esparruan elkarrekin lankidetzan izandako esperientziatik ateratako ikaskuntzen berri emango digute.

Monografikoa “Pentsamendua kiribilean” ataleko bi artikulurekin amaitzen da. Lehenengoan, Sempreviva Organização Feministako Tica More-

nok eta Colectiva XXXK-ko Amaia Pérez Orozok otsailean antolatu genituen jardunaldien esparruan lurraldetutako ekonomia feministei buruz egin zuten elkarrizketaren zati bat jaso genuen, Ekonomia Feminista Ipar eta Hegoaldeko Elkarrizketan izenekoaren eraikuntza ezagutzeko. Monografikoa amaitzeko, R. Lucas Platero, sexu- eta ugalketa-eskubideen aldeko ekintzailea eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Psikologia Sozialeko Departamentuko irakaslea, izango dugu; horri esker, interseksionalitatean sakonduko dugu, pribilegioen, zapalkuntzen, erresistentzien eta harremanen inguruan kolektiboki pentsatzeko beharra ikusarazten duen tresna kontzeptual gisa.

Asko ikasi dugu prozesu horretan, eta, oraingoz, hori da emaitza, estatikoa izatetik urrun, elkartzeko eta erantzukizun indibidual zein kolektiboz jokatzeko gogo horretan gero eta gehiago sakontzera erakartzen gaituen emaitza.

Espero dugu gozagarria izango zaiuzela!



Irudia: Hegoa.

Feminismo deskoloniala eta dena birpentsatzeko erronka

Yuderkys Espinosa Miñoso



Irudia: Yuderkys Espinosa Miñoso.

Yuderkys Espinosa Miñoso: idazle, ikertzaile eta irakasle afro-karibetarra. Antiarrazista eta kolonialitatearen aurkako ekintzaile feminista. Latinoamerikako eta Karibeko mugimendu feminista deskolonialaren aitzindarietako bat da, eta “arrazoi feminista eurozentratuari kritika” egitera jotzen du haren ekarpenak. 18 urteko exodoaren ostean, jaio zen uhartera itzuli zen, Dominikar Errepublikara. Latinoamerikako Ikasketa, Prestakuntza eta Ekintza Feministako Taldea (GLEFAS) eta Junta de Prietas (Beltzen Batzordea) taldeetako kide eta sortzaileetako bat da; talde horietatik, geopolitikoki kokatutako arrazakeriaren aurkako pentsamenduaren eta praktikaren alde jotzen du.

Leticia eta Yeni: *Garapenari buruzko pentsamendu kritikoak proiektuan kezkatzen gaitu nolabaiteko nahasmena egoteak feminismo deskolonialaren definizio zehatzari buruz; beraz, kontu izaguzu, zer da feminismo deskoloniala? Zein da zuen genealogia? Feminismo deskolonialaz ala feminismo deskolonialez ari gara?*

Yuderkys: Niri dagokidanez, nahiago dut feminismo deskolonialaz singularrean hitz egin, feminismo deskoloniala jarduera-eremutzat hartzen baitut, feminismoaren deskolonizazio-programa zabaldutzat, bai postulatuetan, bai eragin politikoan. Nire ustez, nolabaiteko zentzu-batasuna dago feminista deskolonialek hainbat bitarteko eta hainbat esparru eta esperimentziatik feminismo ezagunari egiten diogun esku-hartze kritiko honetan. Horrek ez du esan nahi feminista deskolonialen artean alde gutxi-asko garrantzitsurik ez dagoenik, baina denok egiten dugu feminismoa zalantzan jartzearen alde gure enuntziatio-lekuetatik –pribi-

lejiatu zein ez hain pribilegiatuetatik–, jartzearen alde, modernitate eurozentratuarekin duen konpromisoa dela eta. Denok lortu nahi dugu hori, eta neurri handiagoan edo txikiagoan lortzen dugun helburu bateratzailea da. Izan ere, ibiltzean egiten da bide hori. Askok falta zaigu egiteko, ikasteko, deskubritzeko eta sakontzeko.

Aurreko lan batzuetan (2017) esan dudana bezala, feminista deskolonialak hainbat genealogiatan oinarritzen gara, bai pentsamendu eta ekintza feministaren barruan, bai feminisмотik kanpo. Gutako batzuek asko zor diegu mugimendu feminista beltz eta kolorekoari Ameriketako Estatu Batuetan, feminismo postkolonialari eta lesbianismo feminista autonomoari Latinoamerikan. Gutako beste batzuentzat, bestalde, funtsezkoak izan dira borroka herrikoi eta indigenak, hala nola altxamendu zapatista. Latinoamerikako filosofiaren eragina eta pentsamendu marxistaren errebisionismoa ere ez genituzke ahaztu behar. Baina, beharbada, feminismo deskolonialaren berrikuntzarik handiena izan da gai-

tasuna duela elkarrizketa ezartzeko eta beren burua feministatzat izendatzen ez duten baina beste gizarte-mugimendu batzuen eta lurralde- eta komunitate-erresistentziako borroka eta moduen parte diren emakumeen ahots, esperientzia eta pentsamenduei zilegitasuna emateko. Mugimendu beltzetako, indigenetako eta Europaz kanpoko beste herri batzuetako emakumeak urruneko Beste emakume gisa tratatu ditu feminismoak, kontsideratuz haiek salbatu egin behar direla eta haiengana iritsi behar dela, haiek hezteko eta haiengan kontzientzia antipatriarkala sortzeko.

Hori ez da garrantzi txikiko gaia feminismo deskolonialarentzat. Feminista deskolonialeko batzuk feminismotik kanpoko mundu horietatik gatoz, hark hezitakoak gara. Haren lefroetan sartu ginenean, gure esperientziak, oso desberdinak, kontzeptuz eta kategoriaz kargaturik sailkatu nahi izan ziren, eta eskatu zitzaigun leialtasuna, obediencia, eta klase eta arrazaren aldetik zuten jatorriaren ondorioz pribilegio baldintza hobeetan zeudenek egindako pentsamendu- eta ekintza-jarraibideei jarraitzea. Halako batean, ezin izan genuen gehiago, eta barneko mendekotasuna salatu behar izan genuen, behin eta berriz xehetasun txiki gisa ezkutatu edo jarri nahi zena azaleratu. Hori pixka bat aldatu da gure esku-hartzearekin, baina oraindik ere erronka bat da emakume, lesbiana, trans eta pertsona ez-bitar arrazializatuen belaunaldi berrientzat, feminismoak bere teoria eta programa hegemonikoetan izan duen hedapen eta zilegitasun handiagoko une batean hazitakoentzat.

Gutako askorentzat funtsezkoa da etengabeko elkarrizketa hori, topaketa hori, parien arteko aitortza hori. Gutako askorentzat, gu geu izan ginenekin harremanetan jarri eta besarkatzea da kontua, geuri bezala eragiteko eta mundua ulertzeko gaitasuna ukatu zaienekin.

Hala ere, garrantzitsua da konturatzea feminismo deskoloniala esku-hartze zuzena dela jarduera eta epistemologia feministaren esparruan. Eredu horretan esku hartzeko eta pitzadurak sortzeko helburua du. Eraikin hori berreraikitzen laguntzea, edo gutxienez arrakala batzuk sortzea, haietatik argia sartzeko eta ikusi nahi duenak ikus dezan. Badago kanpoan dagoen errealitate bat, arrazoi eurozentratu deritzon feminismoak ukatzen duena, eta hori ukatzeak lagundu egiten du hark eragiten duen bazterketa eta suntsipen historikoan. Emakumeen gehien-go handi bat munduko herri kondenatuetakoa

Gutako askorentzat, gu geu izan ginenekin harremanetan jarri eta besarkatzea da kontua, geuri bezala eragiteko eta mundua ulertzeko gaitasuna ukatu zaienekin.

da, eta emakume horiek ez daude etxe feministaren barruan, eta ez dute parte hartu haren erai-kuntzan. Horrek ez du feminismoa gainditzen duen arrazoirik, feminismoa da zatiketa horren erantzulea. Feminista deskolonialak ez gatoz zatiketa hori sortzera, erakustera baino ez gatoz. Adur txarreko txori edo haize itxaropentsu gara; eztabaida honetan bakoitzak aukeratzen duen lekuaren arabera da hori.

Nolanahi ere, nire ustez, garrantzitsua da adieraztea feminismo deskolonialak gontzaren rola jokatzeko duela bi mundu horien artean, hau da, feminismoaren eta historiari kanporatutakoen artean. Lan honek ez luke inola ere ordezkartza-interesa dagoela pentsatzera eramanez behar. Feminista deskoloniala mugez artean bizi da. Jada ez dago komunitatean, baina ezta handik kanpo ere. Amildegia ertzean bizi da feminismoan. Kasu askotan, ez da jada feminismoaren “emakumeen arteko” leku horretakoa, eta, berez, ez da inoiz izan, eta, hala ere, esku hartzen du, enbarazu egiten du, gabezia adierazten du, hybrisaren bekatua. Ia ez dugu desengainua erakusteko gogorik ere, eta gogor lan egiten dugu feminismoaren guztiak/guztientzat delako promesa gezurtatzen duten horiei entzutea eragozten duten egiturak agerian jarri eta desmuntatzeko, kanpotik eta posible egiten duten mundu batetik.

Horregatik, feminismo deskolonialak ez luke leku iraunkorrik bilatu behar ekintza feministaren barruan, eta ez luke pribilegio baldintza kaskarragoetan dauden emakumeen borroka kolonizatzearen grinarik izan behar. Eredu feministaren barruan sortzen den borroka da, bere jardunaren mugez ondorioz. Han jaiotzen da, han du eraginik handiena, han egiten du borroka. Hortik kanpo, arretaz entzuteko jarrera du, ikastuna da, umiltasunez jokatu behar du. Feminista deskolonialok burua apaldu beharko genuke, modernitateak ukatutako beste mundu batzuetako emakume eta gizonen jakinduriaren eta ezagutzaren aurrean. Mundu horietan, ez gara ezereen gidari bihurtzen, gidatuak gara eta

Ezagutzen den eta zabalduen dagoen ekofeminismoan, arrazismoa modernitate kolonial-kapitalistak sortzen duen jatorrizko haustura moduan ulertzearen eta kritikatzaren gabezia sumatzen dut.

gida gaitzaten uzten dugu, ezer ez dakigula kon-
turatzen garelako.

Leticia eta Yeni: *Pentsamendu Kritikoak* proiektuaren ardatz egiturazailketako bat, feminismoez gain, jasangarritasun ekologikoa da; beraz, jakiteko gogoia daukagu: ba al dago harremanik feminismo deskolonialaren eta ekofeminismoaren artean?

Yuderkys: Iruditzen zait badaudela lotura puntu garrantzitsu batzuk feminismo deskolonialaren eta ekofeminismoaren artean. Agian, ekofeminismoa da, feminismo ezagunaren korronteen artean, feminismo deskolonialak planteatzen duen arazoetako batera gehien hurbiltzen dena, antzinako lurraldeetan eta bizimodu komunalean ainguratutako emakumeen borrokekin duen konplizitatean.

Ekofeminismoak, hain zuzen ere, beti mantendu izan du sintonia eta elkarrizketa moduren bat lurraldeetako emakumeekin, haien bizi ereduarekin eta lurraren defentsan egiten dituzten borrokekin. Besteak beste, Vandana Shiva eta María Mies figura garrantzitsuak datozkit gogora. Oso jatorri desberdinetatik, egin zituzten lanak ekofeminismo gisa ezagutarazi denaren barruan kokatu izan dira.

Nik ekofeminismoaren berri izan nuen eta hartatik oso gertu egon nintzen 90eko hamarkadaren hasieran, aktibismoan hasi nintzenean. Gogoan dut, mugimenduan sartu berria nintzenean, nire aurreko belaunaldiko zenbait lagun haren lerroetan sartzen zirela, eta haien lana osasun holistikoko, medikuntza naturaleko, espiritualtasun animistako... praktikei buruzkoa zela. Praktika horiek jainkosaren aldarrikapenari heltzen zioten, existitzen zen guztiaren ama sortzaile gisa. Bazen han kosmosarekiko eta naturarekiko loturaren hats bat eta ideia bat. Zaintza pertsonaleko, gorputzaren ulermeneko eta sexualitateko antzinako praktiken balorazio bat zegoen. Gaur egun onartzen dugu praktika

horiek bizitzaren mendebaldartze-prozesuetan hain integratuta ez dauden eta haien mende ez dauden munduetatik datozela. Sorgina emakume jakintsu gisa birsortzea, sendatzeko sekretuak landareen bidez eta astroen boterea menderatzearen bidez zituena, ekofeminismoaren kezken eta proposatzen zuen agendaren erdiguneari zegoen.

Ekofeminismoa hori baino askoz ere gehiago da, jakina, eta uste dut gaur egun hausnarketa berriekin iristen ari dela, unean uneko diskurtsoekin bat datorren lexikoarekin, eta ikusi dut ekofeministek rol garrantzitsua jokatzeko dutela lurraldea defendatzen duten eta bizia arriskuan jartzen duten emakumeei laguntzen, eta funtsezko gaiak pentsatzen ikusten ditut, hala nola zaintza-lanak eta bizitzaren ugalketa.

Alde horretatik, feminismo deskolonialarekin hainbat lotura ikusten ditut; hala ere, desberdintasun batzuk ere bai. Ekofeministak, gehienetan, emakume zuri europarrak dira, edo haien ondorengoak Abya Yalan, eta dituzten postulatuak haien formulazio, gogoeta eta kezketatik datoz, ontologia modernoak baldintzatutako esperientziatik abiatuta. Mundu naturalarekiko kezka ikusten dut, eta, erreferente teoriko batzuetan, modernitate patriarkalaren antolaketa sozialaren oinarria natura-kultura binarismoa dela salatzen du. Horretan dezente hurbil gaude. Beharbada, alderik handiena pribilegio-egoera baxuagoan dauden emakumeen aurreko jarreraren eta haiengana hurbiltzeko moduan dago. Ezagutzen den eta zabalduen dagoen ekofeminismoan, gabezia bat sumaten dut, ez baitu ez ulertzen, ez errotik kritikatzeko, arrazismoa modernitate kolonial-kapitalistak sortutako jatorrizko hausturaren parte dela. Gizakia-natura binarismoa ezin da arrazaren ideiarik gabe pentsatu, eskutik doazeko biak, baita emakumeen menderakuntza ere, gizatiartze ordena horren barruan. Gaiari buruz dudak ezjakintasunetik, ikusten dut ekofeminismoak huts egin dezakeela, jarraitzen badu menderakuntza interpretatzen feminismo beltzak eta feminismo deskolonialak kritikatu dituzten posizio jakin batzuetatik; esate baterako, zaintzaren ekonomia emakumeek egiten dituzten jardueretara murriztuz behin eta berri, behatu gabe gizarte-talde bakoitzean bizitzaren munduaren antolaketa definitzen duten baldintza historiko geopolitikoak, eta hori nola joan den eraldatzen bizitza mendebaldartzeko prozesuen bidez.

Ildo horretan, feminista deskolonialok mundua harremanetan bizi eta esperimentatzen dutene-

kiko elkarrizketa adi eta etengabean jarri dugu arreta. Harreman-ontologiek –teorialari-aktibista batzuek hala deitzen diete, Arturo Escobarrek, Marisol de la Cadena eta Mario Blaserrek, adibidez–, asko dute erakusteko binarismo ezagunetatik kanpo dagoena nola esperimendatzen dugun; binarismo horiek, batzuetan modu ukiezinean, gure interpretazioetan eragiten jarraitzen dute, baita asmo onenez egindakoetan ere. Horrek ez du esan nahi gu geu ere ez gaudenik desikaste-ko eta euromodernitateak oinordetzan jasotako ulermen-moduetatik eta, jakina, eurozentrismo feministatik garbitzen joateko amaierarik gabeko borroka honetan.

Leticia eta Yeni: Eta orain hemen ulertzea gehien kostatzen zaigun galdera: zer egin dezakegu Mendebaldeko feminismoek ekarpen deskolonialak txertatzeko?

Yuderkys: Dena aldatu. Horrekin esan nahi dut feminismoak, oro har, bere egin behar duela mundua pentsatzeko eta esperimendatzeko duen modua aldatzeko apustua, modernitate eurozentratuaren proiektuak proposatzen eta irakasten digun bezala pentsatu eta esperimendatzeari utzita. Hasteko, galderen terminoak aldatu beharko lirake. Adibidez, ez dago Mendebaldeko feminismoek egin dezaketen “(gure) eskaerak txertatzea” bezalako zerbait, ezin baitira gure kritikak eta gure proposamenak jada horrela eginda, pentsatuta, teorizatuta, agendatuta, modernitatearekin eta kolonialtasunarekin konprometituta daudenetara gehitu. Eta gure kritikak ezin dira eskaeretara ere murriztu, ez dira-eta. Egiten dugun kritika ezin da agenda feminista ezagunean gehitu beharreko puntu batera murriztu. Esaten ari garena da armazoi feminista eraiki den interpretazioaren eta desioaren oinarriak programa baten parte direla –euromodernitatea–, eta programa hori jende gehiegi eta bizitza gehiegi suntsitzearen eta desagertzearen arduradun dela. Desagertze ar dauden jende eta mundu horien barruan daude planetako emakume gehienak.

Hortaz, ezin dira gure ikuspuntuak txertatu, feminismoa errotik aldatu ezean. Horretarako, feminismoak beste zerbait izan behar du, orain den hori eta izan den hori ez bezalako. Angela Davisek dio feminismo beltzak guztien feminismoa izan beharko lukeela, ez bakarrik beltzena. Feminismo guztiak feminismo beltza izan beharko luke, eta horrek ez du esan nahi denak garela beltzak (edo indigenak, edo ijitoak, edo musulmanak, edo afrikarrak, edo

asiarrak edo arrazializatuak), baizik eta denok hartzen dugula menderakuntza-matrizea osorik desagertzeko konpromisoa.

Feminismo osoak izan beharko luke deskoloniala eta antiarrazista, baina, jakina, horrek erantzukizun bat dakar. Kontua ez da bakarrik izendatzea, ezta elkartasuna adieraztea ere. Klasearen eta arrazaren pribilegioak amaitzeko aktiboki lan egitea da kontua, ulertuz emakume gehienek gorpuzten gaineko indarkeria material eta sinbolikoa gizartearen egituraketa arrazista eta kapitalistari aurre egiten diogunean baino ez dela amaitzen.

Hortaz, Mendebaldeko feministek egin behar duten lehen gauza da menderakuntzaren interpretazioa eta borroka-agenda generoa eta sexualitatea ardatz dituen Mendebaldeko feminismoa alde batera utzi. Ulertu behar dute bestela beren kabuz eta beren askapenaren alde baino ez direla ari lanean. Hau da, pribilegio hobea dutenentzat egiten dutela lan. Feminismo deskolonialak, Europaz kanpoko herrietako emakumeen borroka-aren adibideari jarraituz, generoa edo patriarkatua deszentratzea proposatzen du, emakumeen menderakuntzaren eta arautu gabeko gorpuz eta sexualitateen funtsezko azalpen gisa. Generoa beti dago arrazializatuta eta ordena kolonial baten barruan. Hori ulertzea da feminismoa izan dena eta gaur egun izaten jarraitzen duena besterik bihurtzeko oinarria. Jarraian, zalantzan jarri beharko da, feminista deskolonialek eta feminismo beltzek egiten dugun bezala, programa politikoa eta utopia feminista osoa.

Esan beharrik ere ez dago, gainera, aldaketa hori inoiz baino beharrezkoagoa egin dela, ikusten baitugu liberazio-programa horrek, Mendebaldeko eta mendebaldartutako feminismoaren utopia eurozentratuak programa horrek, munduko herri menderatuak garenak askatzeko aukeraren aurka egiteaz gain, gaur egun dakigunez, giza mailatik kanpo, eta ondorioz programaren zerbitzura, geratu denaren esplotazioan oinarritutako heriotza-eredu bati jarraipena ematen diola. Aldaketa hori inoiz baino beharrezkoagoa egiten da, badakigulako bizitza osoaren desagertpena eramaten gaituela.

Askok dago ikasteko bizitzaren lokarria suntsitzeko ahaleginari oraindik aurka egiten dioten horien gaitzak. Mendebaldeak ukatutako munduetan bizi diren gainerako bizitzekin komunioan dauden emakumeek asko dute guri irakasteko. Mendebaldeko eta mendebaldartutako feminismoek

Kritika deskolonialak erronka garrantzitsuak dakarzkio lankidetzaren esparru horri, baldin eta, berez, indarkeria epistemikoa, salbaziorako grina eta jaraunspen kolonizatzailea baztertzeko konpromiso hori hartzeko interesa baldin badago.

galdera hori serio hartzen badute, zehazki, haien nagusikeria zalantzan jarri eta ikasteko jarrera hartu behar dute. Apaltasuna praktikatzeara onera da beste programa baterantz egiteko. Ezagutza eraikitzekeo gaitasuna ukatu dietenengandik ikastea eta salbazio-asmoa alde batera uztea.

Leticia eta Yeni: Hegoa nazioarteko garapenari eta lankidetzari buruzko ikasketei buruzko unibertitate-institutua da, eta, beraz, hurrengo galdera derrigorrezkoa egiten zaigu: zeintzuk dira feminismo deskolonialak nazioarteko garapenaren eta lankidetzaren ereduari egiten dizkion kritikak? Posible al da eredu hori guztiontzat baliagarria den eredu bihurtzea?

Lehenik eta behin, zalantzan jarri behar dugu orain, hainbeste kritika egin ondoren, garapenerako lankidetzari buruz hitz egiten jarraitzea. Latinoamerikako eta Hirugarren Munduko pentsamendu kritikoa tradizio luzea dago garapenaren ideia eta nazioarteko lankidetzaren barruan duen makineria pragmatiko guztia desegitean zentratuta. Arturo Escobarren (2007) lan klasikoek garapenaren kontzeptuari kritika zorrotza egin zioten, Europak sortutako aurrerapenaren ideiarekin nola konprometituta zegoen azalduz. Feminismo postkolonialak ere bere ekarpena egin zion kritika horri Hirugarren Munduko emakumeen ikuspuntutik; adibidez, Mohantyren (2008a; 2008b) lanen bidez.

Berrikiago, feminismo deskolonialak kritika hori onartu du, eta aktiboki inplikatu da jarraipena ematen. Adibide ona da Celenis Rodríguez Morenoren lana (2014; 2018); ikerlanean erakusten du nola ematen dioten jarraipena enpresa kolonialari generoaren eta garapenaren eremuak eta Hirugarren Munduko emakumei zuzendutako politikek, eta nola sartzen diren Europakoak ez diren gainerako herrialdeetan narratiba moderna mendebaldartzeko, hedatzeko eta ezartzeko prozesuetan.

Nire aldetik, uste dut ezinezkoa dela “garapenerako laguntzako” aparatu hori, oraingoz behintzat, desagertzea, eta, beraz, bere barruan egiten diren proposamen kritikoei eta alternatibek, pribilegio maila baxuenean dauden herrietako emakumeekin benetako konpromisoa hartu nahi dutenek, egin diren kritiken argitan, beren zeregin historikoa birpentsatzen hasi beharko lukete, eta parte guztien artean beste harreman mota bat ezartzen.

Feminista autonomo gisa, laurogeita hamarrek hamarkadan, gure mugimenduek nazioarteko lankidetzarekiko zuten mendekotasun ekonomikoaren salaketaren parte izan nintzen, eta lankidetzaren feministako agentziekin elkarriketak bultzatu genituen, elkarrekin pentsatzeko nola eralda zitekeen egitura hori, benetako laguntza izan zedin, eta ez gure mugimenduak indartzeko oztopo. Feminismo deskolonialak eztabaida horiek sakontzen ditu, eta apustua bikoizten du, erakusten baitu handik aurrera gertatu ziren eraldaketa batzuk ez zirela nahikoak izan.

Hala ere, azken urteotan itxaropenez ikusi dugu Latinoamerikan eta Espainiako Estatu GGKE-etan lankidetzaren funtsek ahalegin batzuk egin dituztela jardueraren eremu horretan beren rola eraldatzeko. Esperientzia horietatik asko ikas dezakegu. Horien arabera, identifikatzen dut lehenengo urratsak zerikusia duela komunitateekin eta kontraparteekin harremanetan jartzeko moduan jarrera aldatzarekin, harrokeriatik eta dena jakiteko ustea izateko jarreratik ezjakintasuna onartzen duen eta tradizionalki ezagutza-gaitasunean eta eragite historikoan ukatuak izan diren ahotsetatik entzuteko eta ikasteko prestasun handiagoa izatera aldatzarekin.

Kritika deskolonialak erronka garrantzitsuak dakarzkio lankidetzaren esparru horri, baldin eta, berez, indarkeria epistemikoa, salbaziorako grina eta jaraunspen kolonizatzailea baztertzeko konpromiso hori hartzeko interesa baldin badago. Azken finean, goitik behera definitutako errezetak ahaztu behar dira, finantzatu beharreko agenden bidez gailentzen baitira, komunitateek beren arazotzat eta horiei aurre egiteko modutzat jotzen duten horretan lankidetzaren aritzeko. Horrek berekin dakar errugabeak ez izatea eta jada egin den kaltea aitortzeko gai izatea, komunitateek arazo horiek definitzeko prozesuak babestea, benetako eta lehentasunezko arazo eta agenda jakin batzuk ezarri dituzten prozesu historikoak eztabaidatuz, hau da, deskolonizazio-prozesuak babestuz.

Bibliografía

- Escobar, Arturo (2007): *La invención del Tercer Mundo*, 1. argitaraldia, Fundación Editorial El Perro y la Rana, Caracas.
- Espinosa Miñoso, Yuderkys (2010): “Etnocentrismo y colonialidad en los feminismos latinoamericanos: Complicidades y consolidación de las hegemonías feministas en el espacio transnacional”. *Revista Venezolana de Estudios de la Mujer*, 33. zenbakia, 14. liburukia, 37-54 or.
- (2017): “De por qué es necesario un feminismo descolonial: diferenciación, dominación co-constitutiva de la modernidad occidental y el fin de la política de identidad”. *Revista Solar de Filosofía Iberoamericana*, Dossier Epistemologías feministas latinoamericanas, 12. urtea, 12. liburukia, 1. zenbakia, 141-171. or.
- Mohanty, Chandra T. (2008a [1986]): “Bajo los ojos de Occidente. Academia feminista y discurso colonial” in: Hernández Castillo, Rosalva Aída eta Liliana Suárez Navaz (koord.): *Descolonizar el Feminismo: Teorías y*
- Prácticas desde los Márgenes*, Cátedra, Madril, 112- 163. or.
- (2008b [2003]): “De vuelta a “Bajo los ojos de Occidente”: La solidaridad feminista a través de las luchas anticapitalistas” in: Hernández Castillo, Rosalva Aída eta Liliana Suárez Navaz (koord.): *Descolonizar el Feminismo: Teorías y Prácticas desde los Márgenes*, Cátedra, Madril, 404-468. or.
- Rodríguez Moreno, Celenis (2014): “Mujer y desarrollo: un discurso colonial”. *El Cotidiano*, 184. zenbakia, 31-37. or., (2019ko urtarrilaren 10ean kontsultatua), eskuragarri hemen: <https://www.redalyc.org/articulo.oa?id=32530724002> Hiperestekareferentzia baliogabea.
- (2018): “Las políticas públicas de mujer y género: radiografía de una tecnología de género moderno colonial” in: Gómez Obando, Santiago, Catherine Moore Torres eta Leopoldo Múnera Ruiz (edit.): *Los saberes múltiples y las ciencias sociales y políticas*, II. liburukia, Universidad Nacional de Colombia, Bogota, 321-338. or.



Irudia: Yuderkys Espinosa Miñoso.



Afroféminas, gure izate bakarra erresistentzia da

Suzanne Ndjom, Afroféminaseko kidea.

Nor gara: Afroféminas Hemen aurkituko gaituzu: <https://afrofeminas.com/>

Feminismoa, modu soilean azalduta, sexismoa, esplotazio sexista eta zapalkuntza amaitzeko mugimendua da. (Bell Hooks)

Leticia eta Yeni: Garapenari buruzko Pentsamendu Kritikoak proiektutik, Afroféminas oso esperientzia interesgarria dela iruditzen zaigu online ikusten dugun alde ikusgarritik; konta iezaguzu, zer lan egiten duzue?

Suzanne: Afroféminas, lehenik eta behin, 2014an Antoinette Torres Solerrek, Zaragozan bizi den emakume beltz eta migratzaile kubatarrek, sortutako komunikabide bat da. Horrez gain, hispaniar hizkuntzako herrialdeetan bizi diren afrikar ondorengoen online komunitatea da. Gure jarduera nagusia Espainiako estatuko emakume beltzen bizitzari buruzko hausnarketa egitea da, batez ere, ahalduntzea, feminismo beltzean oinarritutako gure argitalpenen bidez, eta, beharrezkoa bada, emakume beltz eta arrazializatu askori laguntzea, ekintza arrazista mikro eta makroen salaketa publikoaren bidez. 70 herrialdeetan baino gehiagotan irakurtzen gaituzte, eta milioi bat eta seihun mila irakurletik gora izan ditugu azken urte honetan. Hori guztia osatzeko, tailerrak eta hitzaldiak egiten ditugu unibertsitateetan, kultura-guneetan edo ikastetxeetan, hala nola institutuetan. Tailerrak eta hitzaldiak ematen ditugu, eta ikusarazteko, sentsibilizatzeko eta, batez ere, ahalduntzeko eztabaidetan parte hartzen dugu. Orain, berriz, buruaskiak izateko prozesuan gaude, Afroféminasen Dendaren bidez. Ezagunak dira, halaber, *Blackface*¹ deitzen denaren aurkako gure kanpainak, arraza beltzeko pertsonak barrengarri uztea

bilatu duen eta bilatzen duen praktika baita. Esteka honetan nahiko ondo ilustratuta ditugu gure borrokek eragiten dituzten gertaerak, eta gure eskola- eta hezkuntza-sistemaren akatsak gogorarazten dizkigute. Izan ere, gure umeak eskolara itzuli diren egun hauetan, oso ondo datorkigu gogoraraztea afrikar ondorengoen oso txikitatik hasita jasotzen dugun gizatasun-gabetzea iberiar lurralde osoan.

Leticia eta Yeni: Afroféminasen bidez, hainbat aldiz zabaldu duzue interseksionalitateari eta dekolonialitateari buruzko edukia. Konta iezaguzu nola itzultzen den hori barne-mailara; hau da, zer estrategia jarri dituzue abian prozesu feminista interseksionalak eta dekolonialak eraikitzeko? Eta zer erresistentzia motari aurre egin behar izan diozue hori egin ahal izateko?

Suzanne: Lehenik eta behin, ez dugu geure burua feministatzat jotzen. Afrofeministak gara. Teoria eta historia ezberdinak dira. *Viviendo en modo Afroféminas* liburuan, Antoinettek oso ondo azaltzen du nabardura garrantzitsu hori; hala ere, horri buruz oraindik irakurri ez duzenoi aurreratzen dizuegu aldea hitz batean dagoela, interseksionalitatea² hitzean; asko erabiltzen den hitza da, baina, aldi berean, oso absente dago. Egutero inposatzen diren diskurtso ofizialen aurrean amore ez ematea da gure estrategia nagusia. Afroféminasekin hitz egin daiteke, baina beti berdinen arteko harreman batetik.

¹ <https://afrofeminas.com/2015/04/23/los-disfraces-y-los-estereotipos/>

² <https://afrofeminas.com/2018/12/12/interseccionalidad-asignatura-pendiente-del-feminismo-en-espana/>

Existitzeko dugun eskubidea etengabe azaltzen ez aritzea da gure beste estrategietako bat. Afroféminasek 6 urte ditu jada, gure lana egin dugu.

Arazoa da lehendabizi guk geuk izan behar dugula eta geure praxia aurkitu behar dugula etorkizunean batasunaz hitz egin ahal izateko. Nolanahi ere, batasun hori ez da guretzat kezka bat, funtsean, faltsua delako. Ez da emakume beltzen ondoan borrokatu nahi, emakume beltzak kontrolatu baizik. Botere borroka hutsa da, ez zaituztegiulako lausengatzen. Uste dugu gure feminismoa feminismo gehiago dela feminismo zuria baino, zeina eurozentrista, elitista, partziala, subjektiboa den. Beren feminismoarekin bat egiteko eskatzen digute; gauza bera egin dezakegu, haiek gurearekin bat egiteko eskatu. Emakume zuriak dituzten ez bezalako arazoek zeharkatzen gaituzte; egia da batzuk komunak direla, baina guk arrazismoa bizi dugu, gizon eta emakumeengandik datorrena. Bada esaldi bat esaten duena berokia duenak nekez ulertuko diola hotza duela esaten duenari; guk hotza sentitzen dugu, arrazismoaren hotza, eta “ulertzen” dugu hotz horren aurkako berokia duten duten pertsonak ez dute erraza gure eguneroko errealtatea ulertzea eta horrekin enpatizatzea.

Erresistentzietan dagokienez, garrantzitsua da adieraztea “feminista” batzuen erasoak jasan ditugula, edo, Antoinettek planteatu duen moduan, *bullying* kolektiboa. Normalean, hori adinekoengandik heldu da; izan ere, feminismoaren zati bat da, eta badirudi, jaso zuten heziketarik, kosta egiten zaiela desikastea, eta ahalegin handiagoa eskatzen diela feminismo beltza zer den ulertzeak. Beste eraso batzuk eskuin muturraren, eskuinaren, zentro sozialdemokrataren, ezker muturraren eta abarren ohiko erasoak dira, eta antiarrazismo feministaren aurkako erresistentzia orokorra da herrialdean. Gogora dezagun inork bere burua arrazistatzen jotzen ez duen eta denek lagun beltz bat duen estatu batean bizi garela. Gauza bera gertatzen da tratatu txarrak ematen dituen pertsona batek emakume, ama edo alaba bat izugarri “maite” duenean. Ez baduzu ulertzen aldatu behar duzula, deseraiki, nekez emango dituzu lehen urratsak problematika horri aurre egiteko eta gai bati buruz duzun pertzepzioa aldatzeko, errealtatea hori edozein dela ere.

Herrialde honetan, gure herrialdean, pertsonen aurkako aurreiritziak daude, itxuragatik, adinagatik, janzteko moduagatik, sexuagatik, jatorriagatik, bost minutu geroago lurralde batera

Uste dugu gure feminismoa feminismo gehiago dela feminismo zuria baino, zeina eurozentrista, elitista, partziala, subjektiboa den. Beren feminismoarekin bat egiteko eskatzen digute; gauza bera egin dezakegu, haiek gurearekin bat egiteko eskatu.

iristeagatik, itxura fisikoagatik, gaitasun ekonomikoagatik eta abar, eta kolektiboen aurkako estereotipoak ere badaude, tradizioengatik, kulturagatik (aniztasuna aberastasuna da), eta arrazakeria, matxismoa bezala, erreala eta mingarria da bizitza errealean, egunerokoa.

Leticia eta Yeni: Eta gai horietatik guztietatik, zer ikas dezakegu zuengandik beste praktika feminista batzuek?

Suzanne: Zehazki, ez dugu zapalkuntzarik erreproduzitzen. Emakume zuriak arrazakeriaren aurkako mugimenduekin egiten dutena gizonen haiekin egiten dutena da, berdina. Afroféminas Espainian eta Latinoamerikan paradigmatik aldatu dituen fenomenoak da. Erreferenteak gara, eta jada ezer ez da berriro berdina izango. Emakume beltzaren kontzientziak heldu besterik ez du egin. Eta dena egin da sareetatik zubiak sortuz. Argentinan, Mexikon edo Kolonbian gurekin lan egiten duen jendea dugu (ez ditugu inoiz fisikoki aldamenen izan!), baina senidetatsun lotura feminista beltz batek batzen gaitu. Sareak gure alde erabiltzen ikasi dugu; hori da ikasketa garrantzitsua.

Leticia eta Yeni: Feminista zuriok arrazismoa nola erreproduzitzen dugun ikusteko ditugun zailtasunek kezkatzen gaituzte; beraz, arrazismoa erreproduzitzen ari garen praktiken adibide zehatzak eman diezazkigukezu? Errepikatzen ez jarraitzeko iradokizunik?

Mila aldiz erantzun dugun galdera oso errepikakorra da ez ote zaigun iruditzen gure existentziak edo feminismoa ulertzeko gure moduak banaketa handiagoa sortzen duela feminismoaren barruan eta, horrela, borroka ahultzen dugula. Zer borroka? Lehenik esan beharke zenidake zer borrokari buruz ari zaren. Lanaren arraza-banaketari buruz? Justiziaren edo hezkuntzaren arrazializazioari buruz? Aukera

Agian, eraso jasan duen kolektiboari aktiboki entzuten ikasi beharko litzateke. Gelditu, entzun eta ekin, beti aliatu-jarreratik.

eskubideen urraketari buruz? Oso zorrotza izango naiz kasu honetan: erabat ez. Galdera hau feminismoei buruzko jardunaldi batean entzuleen artean dagoen pertsona batek, eta gainera emakume denak, egiteak, nire ustez, oso ondo definitzen du borroka feministaren une historikoa, eta Afroféminasen existentzia beharrezkoa eta egokia dela adierazten du.

Argi eta garbi gogaitzen gaituen beste kontu bat da egiten dugun lana aipatzea gu izendatu gabe. Benetan, lan batez eta ahalegin batez jabetzea da, egileak gutxietsiz. Gertatu zaigunean, he-dabidearekin harremanetan jarri gara egiletza aitortzeko eskatuz, eta kontaktu horren ondoren emaitzarik ez badago, sareetan salatzen dugu, gure eskura dauden maila guztietan.

Gogaitu egiten gaitu karitate publikotik bizitza espero izateak ere, baina ez, emakume adimentsu eta ekintzaileak gara. Afroféminasek ez du inoiz laguntza publikorik jaso. Gaur egun, Afroféminasen denda daukagu, eta tailerrak; horiek apurka-apurka deuseztatzen ari gara, hizlarien eta emakume beltzen prekarizazio-iturri bihurtzen hasi direlako.

Agian, eraso jasan duen kolektiboari aktiboki entzuten ikasi beharko litzateke. Gelditu, entzun eta ekin, beti aliatu-jarreratik. Hori litzateke ideia. Eta azkarregi ez erantzutea sentimenduetatik eta emozioetatik, lehen pertsonan egunerokoan min ematen diguten jarreraren aurrean.



Irudia: Afroféminas.

Osatze feminista: gorputzak, espirituak eta identitateak sendatzeko eta osatzeko prozesuak ahalbideratzeko proposamen politiko bat

Osatze feminista, lantaldea (Euskal Herriko Bilgune Feminista)

Nor gara: Bilgune Feministaren baitako osatze lantaldea

Hemen aurkituko gaituzu: osatzefeminista@gmail.com

Osatze feministako kideak hainbat osatze prozesutan murgilduta gaude, leku ezberdinetatik eta modu ezberdinetan... Osatze prozesu propioak, besteenak, bakarka, taldean, zuzenean, zeharka, aktiboki, sostengatuz, konpartituz, etab. Deseroso sentitu izan gara, motz eta hotz gelditu zaizkigu eskura genituen ikuspegi eta bide asko... estu eta bortitz ... eta prozesu horiek aztertuta proposamen berri bat jorratzeari ekin diogu, eta bidean gaude.

Gaur gaurkoz, emakume bezala izendatutako gorputzetatik hitz egiten dugu, klase prekari-zatuetik, lurraren defentsatik, nazio ukatu bateko kide moduan, Euskal Herritik, euskaraz eta euskaratik.

Bilgune Feministaren jardueraren bilakaeran topatu dugu horretarako lekua, autodefentsa feministatik zein elkar zaintzarako egindako bidetik eratorria. Ekonomia feminista, elikadura subirautza, lurraldeen determinazio askea, etab. jasotzen dituen burujabetza feministaren proposamenaren baitan.

Bide honetan, Abya Yalako osatze feministaren estrategia politiko kosmikoa lagungarri egin zaigu; bereziki munduaren ikuspegi holistikoa eta arbasoengandik datorrena berreskuratzeko nahia trukatzeari. Agur bero bat haientzat.

Zer da Osatze feminista?

Osatze feminista, gure aburuz, gorputzak, espirituak eta identitateak sendatzeko eta osatzeko prozesuak ahalbideratzen duen proposamen politiko bat da, askatasunez bizi ahal izateko.

Logika horren baitan, sendatze prozesua berezkoa, sistematikoa, ezinbestekoa, ekidin ezina dela ulertzen dugu. Bizirik irauteko eta autorregulaziorako joera daukagu eta hori ahalbideratzeko sistema eta logika bat dute gure gorputzek (homeostasia, sistema inmunitarioa, emozioak...). Prozesu horiek laguntzearen hautua egin nahi dugu, modu kontzientean bultzatuz.

Hori guztia biziaren hegemonia aitortuz egiten dugu, biziaren arauen eta mugen mende baitago. Naturaren baitan kokatzen gara, naturaren parte eta, ondorioz, natura ez da nigidik kanpo dagoen eta kontrolatu dezakedan zerbait. Esaterako, negua baldin bada, negua da! Edo bihar eguna argituko du, nik nahi edo ez... Edo zahartu egingo naiz... zergatik borrokatu zahartzearen kontra? Bizitzaren araua da, horren kontra joatea alferrik da, frustrazioa baino ez dit eragingo! Gauza guztiak ez daude nire kontrolpean eta ez dute egon beharrik. Horrela dela onartzeak kokatzen nau neure lekuan. Biziaren alde egitea, haren fluxuan joatea, eta ez kontra.

Ekodependente eta interdependente gara. Edonoren eta edozeren ondoan, ez gehiago eta ez gutxiago. Baina honen guztiaren parte izanik. Elkarrekin eta elkarrekintzan jarduten dugu.

Horrela, erantzukizunak hartu nahi ditugu. Ez gara sistemetatik kanpo kokatzen, ezta gutxien gustatzen zaizkigun zapalkuntza sistemetatik at ere. Haien baitako gara eta geure barnean ere baditugu.

Errealitate hau onartzen dugu, baina ez konformismoan erortzeko, baizik eta gutako bakoitza,

Gaur gaurkoz, emakume bezala izendatutako gorputzetatik hitz egiten dugu, klase prekarizatuetik, lurraren defentsatik, nazio ukatu bateko kide moduan, Euskal Herritik, euskaraz eta euskaratik.

kontziente izan eta pertsona zein kolektibo gisa, dagokigun lekutik eraldatzeko. Gure lekuak eta dagozkien ardurak hartu behar ditugu. Ez besteenak baina bai norberarenak. Ez gara biktimak, ez eta guztien ongizatearen erantzule bakarrak ere.

Dagokiguna gure gain hartu nahi dugu, iskin egin gabe: Kolektibo zein pertsona bezala dagozkigun ardurak hartu. Alde batetik, okupatzen ditudan espazioekin eta hartzen ditudan pribilegioekin (izan harremanetan, izan kontsumitzeko moduetan...) zein eragin ditzakedan biolentziakin.

Baina baita ez dagozkidan ardurak utzi ere (inguruko zaintza guztia ez da nire ardura, ez dut pisu guzti hori hartuko). Aldi berean, kendu diguten boterea hartzea: Gure gorputzez erabakitzeko ahalmena...

Biziraupenetik harago, bizitzea merezi duten bizitzak eraiki nahi ditugu. Plazerretik, jolasetik, ongizateetik.

Gorputzek dakarten memoriak askatu eta goxatzeko bitartekoak eraiki nahi ditugu: gorputz prekarizatuek dakarten memoria, arrazializatuak, heterodisidenteak, herri zapalduetakoak... Euskal Herriko lurrek ere herri zapaldu gisa indarkeria ugariaren memoria dakarte: sorgin ehi-za emakume langileen aurka; egitura sozial patriarkalak: maiorazgoak, psikiatrikoak...; gerra zibila eta diktadura frankista; kristau erlijioaren kultura misoginoa; gatazka politiko armatuak: torturak, kartzela...

Horiek ondorio ugari utzi dituzte: jakiturien galera, hizkuntza gutxiestea, deskonexioa, sexualitateak erreprimitzea, mendekotasunak, autoestima baxuak, polizia beldurra... Horrekin batera, metatzaila den munduko leku honetatik hitz egiten dugula ere aipatu nahi dugu, horrek

dakartzan pribilegioekin. Zuriak gara gaur gaurkoz, ikasketadunak, adin jakin batzuetakoak...

Funtsean, jendarte egitura kapitalista heteropatriarkal kolonialaren logikak atera nahi ditugu gorputzetik eta harreman motetatik, periferia deserosoak erdigunera ekarriz, gaixotasuna ere hori baita, normatibitate eza. Normatibitate horrekin apurtzeko beharra sentitzen dugu, garen hori bistaratzuz: gaitasun, identitate, behar eta desira anitzekoak, gorputzean egoteko eta besteekin harremanak egiteko modu anitzak ditugunak. Sistemaren logiketatik bizitzaren logiketan funtzionatzera igaro nahi dugu.

Sendatzearen bidea erro eta erraietatik:

- Berreskuratzetik. Espiritualitatea edo osotasunaren ikuspegia, esaterako. Erlijioetatik haratago, munduan nola kokatzen garen, gure gorputzekin eta ingurunearekin zer konexio sentitzen ditugun. Espiritualtasuna berriro geureganatu nahi dugu, eta osotasuna bizitzeko aukeraz jabetu nahi dugu, zentzuz jantzi. Euskal Herrian kristautasunari lotu zaio nagusiki, eta bestelako espiritualitatearen adierak mugatuak eta jazarriak izan dira. Gainera, arbasoen jakituria eta horien mundu ikuskerak isilarazi dira historian zehar, horren adibide sorgin ehiza da. Jakintza herritarrak berreskuratu, birdefinitu eta berrasmatzeko ahalegina egin nahi dugu.
- Bizitzaren izaerarekin bat egitetik, bizitzako etapa eta prozesu bakoitza onartu (doluak, zahartzea, zikloak, aldaketak, bizi proiektuetako gorabeherak...) eta gure errai pertsonal nahiz kolektiboetatik abiatu nahi dugu, bizitza bizigarriak bizitzeko.
- Naturarekin bat egitetik. Naturarekiko botere harremanak gainditu nahi ditugu, naturaren parte garen heinean, guretzat natura ez da kontrolatu eta menderatu daitekeen kanpoko elementu bat. Naturaren baitan, gure izatean sustraitu nahi dugu, kanpoko injerentziek eragindako noraezetatik geure lekuetara bueltatzeko.
- Bizimodutik eta unean unekotik. Alferrik zai- gu beste egoera batzuen fantasietan aritzea, "hau egin banu..." edo gertatzen dena ikusi nahi ez izatea. Ez garamatza inora, ez dugu ezer eraikiko hortik. Hau naiz, hau gara, egoera honetan nago edo gaude. Atzera edo aurrera

Jendarte egitura kapitalista heteropatriarkal kolonialaren logikak atera nahi ditugu gorputzetik eta harreman motetatik, periferia deserosoak erdigunera ekarriz, gaixotasuna ere hori baita, normatibitate eza.

indibiduala. Horregatik, prozesuak bakardade-tik eta tratamendu indibidual pribatuen bidez (tradizionalak zein alternatiboak) egin ordez, adiskidetasunak eta sostengu sareak eratuz egin nahi ditugu, geure eratzeko eta ondo bizitze horretan konplize eta bidelagunak baikara.

Bizi-prozesuen patologizazioa eta tabuak (hilekoa, heriotza, sexualitatea...) zein zaintza lanen nekeak, isolamenduak, prekaritate egoerak eta bizi erritmoen bizi baldintzak gainditu nahi ditugu. 60 urtetik gorako emakumei errezetatzen zaizkien antidepresibo kopurua hartu genekaze horren adibide. Hori guztia politizatzeke, ahizpatasunaz dihardugu eta hori antolatzeke beharra sentitzen dugu.

Militantziak birpentsatu eta berpiztu ere egin nahi ditugu, aurreko militantzia-ereduetan, heroikotasunaren eta sakrifizioaren kulturaren naturalizazioa bizi izan baitugu askok, edota agenda eta erritmo kapitalista produktiboak izatearen sententzia izaten dugu. Begiratu eta birplanteatu nahi dugu parte hartzen dugun taldeetan baloratzen diren lanak eta jarrerak, elkarzaintzek zer leku hartzen duten...

Horrekin batera, bizitza eta militantzia bizigarrien iruditeriak sortzea eta asmatzea ere erronka polita litzateke.

Proposamen politikoa da

Aipatu bezala, osatze feministaren proposamena jabetze eta boteretzeko ariketa bat da, bizitzara jauzi bat egiteko, bai gorputzarena, bai jakituriarena, bai historiarena... Hortaz, ariketa intimo bat izateaz gain, ariketa kolektibo eta politikoa da.

Gure ustez, eraldaketa sozialak gertatzeko, eraldaketa intimo eta pertsonalak ere beharrezkoak

dira. Eta aldi berean, eraldaketa intimo eta pertsonalek eraldaketa sozialak ere eragiten dituzte. Proposamen honek logika horri jarraitzen dio. Beraz, aktibo politiko gisa baloratzen dugu, ezinbestekoa izatearekin batera, aberasgarria delako askapen prozesuen baitan. Izan ere, eraldatu eta eraiki nahi dudana non gertatzen da, kanpoan ala barruan?

Aldi berean, osatze prozesuak anitzak direla ulertu behar dugu, bai erritmoetan, bai moduetan, bai norabideetan. Norbanako eta kolektibo bakoitzak berea egingo du, kontraesan eta deserosotasun ugarirekin. Hauek errespetuz eta epaitu gabe elkar sostengatzea eskatuko du.

Osatze feministaren baitako jarduna

Alde batetik teorikoki lantzen ari gara, elkartuz, esperientziak konpartituz eta gorputzetik egiten ari garen hori azaltzen saiatuz, hitzak bilatuz, bai eta nondik eta nola esan nahi dugun ere.

Bestetik, urtero egonaldi batzuk antolatzen ditugu, 2-3-4 eguneko enkontruak naturaz inguratutik. Gelditzeko eta atsedena hartzeko sortzen ditugun espazio feminista osagarriak izaten dira: geure buruei, gorputzei eta kolektiboari arreta eskaintzeko, zaintzarako, edo lanketak egiteko... Elikadura burujabetzan eta agroekologian oinarritzen gara elikatzeko, lekuko errealitatea jaso eta aukerak baliatzen ditugu, lekutzeko errituak erabiltzen ditugu, gorputzaren eta artearen bidez osatzeko eta askatzeko bideak...

Horrekin batera, erritu berriak sortzen eta lehen-goak berreskuratzen saiatzen ari gara. Arrazoimena eta hitza gailentzen den momentu honetan, artea eta espresatzeko eta elkartzeko beste modu batzuei ere lekua egiten diegu, geure eta naturaren zikloetan kolektiboki kokatuz eta ospatuz.

Horretaz gain, tailerrak egiten gabiltza: gorputzak badakiela diogu, badakiela zer premia dituen eta badituela moduak askatzeko, orekatzeko... Tailerrak egiten ditugu, hori entzuteko eta estrategia propioak aurkitzeko eta besteen-gandik ikasteko, espazio goxoak sortuz.

Esperientziak eta jarduteko moduak jasotzen ere hasi nahi dugu. Uste dugu hainbat osatze esperientzia, baliabide edo estrategia garatu dituztela hainbat kolektibok eta oso interesgarria iruditzen zaigu haien esperientziak ezagutzeko, barne-

ratzea... Eta horrekin batera, baliabideak eskuragarri jartzeko moduak arakatu nahi ditugu.

Azkenik, barnera begira egiten ari garen lanke-tari ere garrantzia ematen diogu. Talde bezala hasieratik nahi izan dugu emozioek, elkarzaintzak eta egoteko modu ezberdinek lekua izango duten militatzeko espazioa izatea. Horretarako, talde dinamikak, rolak eta egiteko moduak bilatzen eta sortzen ditugu, parte-hartze desberdinak ahalbidetzeko. Bakoitzak dakarren horri lekua eginez eta taldean ekarpenak egiteko modu ezberdinak jasoz. Gorputz sentsazioak, emozioak, intuizioak, arrazoiak... denek lekua izatea eta horretarako baldintzak sortzea da asmoa, eta horretarako kanpokoari ez ezik, horri ere lehentasuna eta denbora eskaini behar zaio.

Horretaz gain, bizi garen lekuaz eta uneaz jabetu behar dugu, pertsona gisa kokatzeko, bai gure bizitzetan, bai lantaldean, bai bizi garen sasoi edo zikloan. Hortik abiatu ahal izateko. Eta batez ere, pentsatu, sentitu edo sumatzen dugun horri aterabidea emateko baimenak ematea geure buruei eta elkarri. Sendatzeko eta osatzeko.



Irudia: Osatze Feminista.



Coòpolis: saiakuntza-errakuntza ekonomia solidario, feminista eta antiarrazista baterako

Elba Mansilla, Luz Helena Ramírez eta Tariana Salazar,
Coòpoliseko kideak.

Nor gara: Coòpolis

Hemen aurkituko gaituzu: <http://bcn.coop/bienvenidos-a-coopolis/>

Coòpolis ekonomia sustatzeko bulego *atipiko* bat da. Hainbat berezitasun ditu: lehenik eta behin, Can Batlló barrutian dago, 2011n auzoak berreskuratutako industria-esparru zaharrea, zeina herritarren ondarearen formularen pean kudeatua den. 13.000 m²-ko azalera hartzen duten proiektu guztiak “Komunitate- eta auzo-espazio autogestionatua” elkartearen batzarrak balioztatu ditu.

Bigarrenik, Coòpolis 11 gizarte-erakundek –irabazi-asmorik gabeko lan-kooperatiba dira gehienak– osatzen dute, ekintza-ardatzak eta ildo estrategikoak zuzentzen eta garatzen dituztenek. Proiektuaren finantzaketa, funtsean, Kataluniako Generalitatetik eta Bartzelonako Udaletik dator, eta zerbitzu publikoak kudeatzeko lankidetzak publiko-kooperatibo-komunitarioan ere sartuta dago.

Coòpolis proiektua auzoak, Ekonomia Sozial eta Solidarioak (ESS) eta administrazio publikoak batera egindako apustua da, Can Batlló barrutian ekonomia kooperatiboa sustatzeko ekipamendua garatzeko. Helburua da jarduera sozioekonomikoko eta prestakuntzako ekosistema bat eratzea, enplegua sortzeko eta gizartean eragina izateko, kooperatibetan lanpostuak sortzeko eta tokiko sendotze sozioekonomikoa bultzatzeko, bokazio eraldatzailea duten praktiketatik abiatuta. Bartzelonako hiririk eta hirirako pentsatutako, borrokatutako eta irabazitako ekipamendua da, metropoli-dimentsiokoa, Kataluniako Ateneo Kooperatiboen Sarea osatzen duten 13 ateneoekin koordinatuta lan egiten duena.

Hirugarrenik, azpimarratu nahi genuke, zentzu ortodoxoan sustapen ekonomikoarekin lotutako helburuez gain, Coòpolisek eraikuntzako eta eragin politikoko hainbat ildo estrategiko dituela, horiek gainditzen dituzten osa-

gai ekintzaile indartsu batekin. Artikulu honean zaintzaren, migrazioaren eta aniztasunaren ardatzak aztertuko ditugu.

Abiapuntua: diagnostikoa eta mapaketa

2016-17 ikasturtetik aurrera, sektore eta praktika kooperatibo feminista eta antiarrazistekin lotutako hainbat erakunde hasi ginen aztertzen zeintzuk diren ESSak herri-klaseen autoantolaketa-rako eta zaintza-lanen demokratizaziorako duen ahalmen eraldatzailea mugatzen duten faktoreak.

Kataluniako Ekonomia Solidarioaren V. Azokan (FESC), MigrESS (Migrazioa eta Ekonomia Sozial eta Solidarioa) kolektiboak, Ekonomia Solidarioaren Sarearen (XES) eta Coòpolis laguntzarekin, lehen diagnostikoa egin zuen jatorri migratzailea duten pertsonen ESSn parte hartzeaz buruz eta erakundeek proiektu solidarioetan paperak erregularizatzeko prozesuak laguntzeko dituzten zailtasunei buruz.

Prozesu horrekin batera, Coòpolis ekimen kooperatiboen eta komunitarioen lehen mapaketa egiten hasi zen. Ekimen horiek beren jarduera Kataluniako zaintza-lanen esparruan hedatzen dute, eta jatorri migratzaileko emakumeen protagonismo nabarmena dute. ESSaren sozietate-forma desberdinen pean, etxean zaintza-lanak eta laguntza emateko enplegu- eta zerbitzu-premiari erantzuten dioten proiektuen konstelazio bat identifikatu dugu: etxeko langileen sindikatuak, hala nola Sindillar, Sindicato de Cuidadoras Sin Papeles (Paperik Gabeko Zaintzaileen Sindikatua) eta Mujeres Migrantes y Diversas (Emakume Migratzaile eta Anitzak); emakume latinoek gidatutako lan-kooperatibak, hala nola Mujeres Pa'lante, Ca L'Abril eta Més Que Cures elkarteak; hazkuntzako eta elkar-laguntzako hainbat elkarte, forma juridi-

korik gabe, Kataluniako lurralde osoan barreiatuak; eta kudeaketa publiko-kooperatiboko esperientzia aitzindariak, hainbat administrazioen laguntza dutenak, hala nola Cuidem Lluçanés kontsumitzaile eta erabiltzaileen kooperatibarena edo berriro udalekotutako etxez etxeko laguntza eta kudeaketa kooperatiboko zerbitzua Arbúciesen (Girona).

Lehen mapaketa- eta diagnostiko-ekintza horietatik abiatuta, Kataluniako mugimendu kooperatibo eta solidarioaren jatorriari eta klaseari dagokionez oso homogeneoa den osarari buruzko hainbat sentsibilizazio-, problematizazio- eta eztabaida-ekintza bultzatu ziren¹. Diagnostiko horretan sakontzeko eta, aldi berean, egoera hori iraultzeko garatzen ditugun ekintzen eragina eta bilakaera aztertzen lagunduko dituzten adierazleak edukitzeko, Coòpolis erakundeak datu pertsonalen eta ekimenen bilketa prozesua sistematizatu zuen 2017an. Eta horretarako, programatzen ditugun jardueretan parte hartzen duten pertsonen buruzko eremuak zabaldu ditugu, adibidez, sexu ez-bitarra, NAN/AIZ/PASS identifikazio modu gisa sartuz, eta jatorrizko lekuari edo prestakuntza-mailari buruzko informazioa modu zehatzagoan jasoz; eta prestakuntza- eta aholkularitza-eskaintza zabaldu dugu, ESSaren forma juridiko klasikoek formalki eratu gabeko taldeak eta sareak gehituz.

ESSko subjektu politikoaren uniformetasuna agerian utzi eta krisian jartzeaz gain, gure eragin-lanarekin batera, hainbat ekintza eta eskuhartze egin ditugu, maila desberdinetan kooperatibismo eraldatzailea sustatzeko. *Mikro* mailan, kooperatibek eta erakundeek paperik gabeko langileak eta laguntzaileak erregularizatzeko prozesua autokudeatu ahal izateko jarraitu beharreko urratsak sistematizatu ditugu; *meso* mailan, ikuspegi feminista eta arrazakeriaren aurkakoa sektoreko lan-agendan eta -planetan txertatzen lagundu dugu; eta *makro* mailan, erakundeen arrazakeria eta arraza- eta generojoera salatu ditugu sustapen ekonomiko kooperatiboan inplikaturako erakundeetan. Horretan jarraitzen dugu.



Irudia: Coòpolis.

Guretzat, memoria soziala funtsezko inspirazio-iturria izan da. Ikuspegi komunitarioa eta solidarioa duten migratzaileen jatorrizko komunitateen praktiketan eta XIX. mendearen amaierako eta XX. mendearen lehen hereneko sindikalismo borrokalariaren eta langile-kooperatibismoan aurkitu ditugu erreferentzia eraldatzaileak. Erreferentzia horiek, gaur egungo testuingurura eguneratuta, administrazioarako eragin politikoa eta kontrabotere kooperatiboko esperientziak sortzeko aukera eman digute. Estrategia-konbinazio horrek bidea markatzen digu kooperatiba-sarea eta ehun solidarioa hedatzeko eta artikulatzeko, lankidetzaren, mutualismoaren eta elkarrekiko laguntzaren eguneroko jardunaren bidez.

Izendatzearen eta aintzat hartzearen garrantzia

Datuak biltzeko eta proiektuak mapeatzeko prozesuan ikuspuntuak zabaldu ondoren inor bidean ez uzteko, ezinbestekotzat jotzen dugu, halaber, guk ESS deitzen duguna izendatzeko moduen aniztasuna aitortzea, ESS osatzen duten tradizio, irudimen eta praktika desberdinen arabera, eta hiztegi ekonomiko klasikoaren itsutasuna eta zaharkitzea onartuz. Hainbat aldea aurkitu genituen², eta, azkenean, Ekonomia Migratzailea eta Anitza formulatu aurkitu dugu bilatzen genuen aintzatespena eta arintasuna ahalbidetzen zigun tresna. Era berean, FESCn

1 Coòpolis-en jarduerak 2018-19 ikasturtean izandako 1.663 parte-hartzaileen artean, % 68 katalana edo Espainiako estatukoa zen jatorriz; % 58 goi mailako ikasketak egina zen; % 82 langile aktibo zen; eta % 73 26 eta 45 urte artekoa zen. Iturria: Coòpolis-Ateneu Cooperatiu de Barcelona "Memòria d'activitats 2018-19".

2 Adibide gisa, gure erreferentzietako batzuk ematen ditugu: Ekonomia eraldatzaileak (Suriñach, R: 2017), Ekonomia herritarra (Jaramillo, O. Jacome, V: 2019), Ekonomia plurala (Laville, J.L: 2009), Ekonomia sozial herritarra (Ndiaye, S: 2008) edo Ekonomia komunitarioa (Chiroque, H. Matuberría, V: 2011), beste izendapen batzuen artean.

Behar ditu nahitaez, ESSren ehunaren aldetik, migratzaileekiko botere-harreman bertikalak erreproduzitzen dituzten praktikak eraldatzea eta antiarrazakeria ekonomia eraldatzaile baten balioen eta printzipioen barruan txertatzea.

eta XES bezalako plataformetan parte hartzeaz gain³, egokitzen jo genuen Ekonomia Solidario Migratzaile eta Anitzaren Azoka espazio ez-misto gisa antolatzea⁴, eta lehenengo edizioan 94 proiektuk parte hartu zuten. Coòpoliseko Migrazioen Zirkuluan, eremu ez-mistoak tresna gisa ulertzen ditugu, ESSaren barruan boterearen eta pribilegioen banaketa aldatzen eta migratutako eta arrazializatutako pertsonen aukerak eskuratzeko baldintzak berdintzen laguntzen duena. Ildo horretan, Azokak oso ondo bete zituen helburu hauek: migratutako eta arrazializatutako pertsonen bultzatutako proiektuak ikusaraztea, lidergo eta protagonista horiekin jardunbideak eta ekimenak elkarri aitortzeko topagune bat sortzea, berdinen arteko aliantzak ehuntzea eta eztabaida, ospakizuna eta erresistentzia politikoa sustatzea.

Bidea erakusten diguten erronkak eta ikasketak

Coòpolisen lan-planarekiko ikuspegi feminista eta antiarrazistaren transbertsalizazioa prozesu irekia da, eta prozesu horretan, lehenik eta behin, Gizarte Ekonomia klasikoaren zenbait praktika alderatu behar ditugu, zehazki, Hirugarren Sektorerenak. Gure ustez, kooperatibismo eraldatzaileak autokudeaketa defendatu behar du asistentzialismoaren aurrean, eta pentsamolde-aldaketa horrek berekin dakar migratutako pertsonak subjektu politiko ahaldundu eta eragile izateko gaitasuna duten subjektu gisa aitortzea, horiek definitzen dituzten dimentsioen aniztasunetik abiatuta; horretarako, *besteentzat* pentsatutako asmo oneko politiken bertikaltasuna gainditu behar da; izan ere, prozesuaren amaieran baino ez baitira gonbidatzen horiek. Ildo horretan, Inoren kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen zen-

3 Kataluniako Ekonomia Solidarioko Sareak (katalanez Xarxa d'Ekonomia Solidària de Catalunya) 300 elkarte baino gehiago batzen ditu.

4 Ikus laburpenaren bideoa: <https://vimeo.com/342231858>

troak kudeatzeko estrategiaren, Etxeko Lanaren Araubide Bereziaren indargabetzearen edo Lleidan fruta biltzeko kanpainaren inguruko eztabaida-prozesu bat dago abian. Prozesu horretan, mugimendu kooperatiboaren posizionamendu politikoa eskatzen da, gizarte-mugimenduen deiarekin bat egin dezan, migratzaile guztien ezohiko erregularizazioaren alde.

Gure ustez, administrazioarekiko eta sektore kooperatibo eta solidarioarekiko eragina, baitetik, eta praktika eraldatzaile erresilienteetan aurkitzen dugun sormena, bestetik, uztartzen dituen estrategia dualak markatzen digu bidea, gaia agenda politikoan kokatzen laguntzen baitigu, benetako esperientzia ukigarrietara lurretatutako diskurtso kritikoa ekarriz. Hori bai: prozesu horiek guztiak sistematizatu eta kontatu behar ditugu, haien hedapena errazteko eta erreplikagarritasuna sustatzeko.

Proiektu autogestionatuen iraunkortasun ekonomiko eta finantzarioa da oraindik ere oztopo nagusietako bat, ESStik eta komunitatetik politika publikoak bultzatzeko. Genero, jatorri eta prestakuntza mailan neutroa den “ekintzailearen” imajinarioa gainditu behar dugu, Gizarte Ekonomiako sektore batzuek eta “aldaketaren gobernu” batzuek modu tamalgarrrian berenganatua. Begirada partzial horren ondorioz, praktikan, desparekotasun handieneko egoeran dauden pertsonen gidatutako proiektuei merkatuaren bidez bideragarriak izan daitezen eskatzen zaie, eta administrazioa salbuesten du horiek abian jartzeko eta –batez ere– sendotzeko beharrezkoa den erantzunkidetasunetik. Administrazio publikoak tresnak garatu behar ditu nahitaez langileen egoera administratiboaren eta ezkutuko sektoreetan egiten diren jardueren ekonomikoen erregularizazioa baloratzeko, proiektuen ebaluazioa desmerkantilizatu eta egindako jardueraren balio soziala aitortu ahal izateko; eta, ESSren ehunaren aldetik, eraldatu egin behar dira migratzaileekiko botere-harreman bertikalak erreproduzitzen dituzten praktikak, eta antiarrazakeria politikoa txertatu behar da ekonomia eraldatzaile baten balioen eta printzipioen barruan.

Coòpolisen, lankidetzaren publiko-kooperatibokomunitarioko formulak eraikitzen eta aztertzen jarraituko dugu, Ekonomia Solidarioa demokratizatzen eta bizitzaren autokudeaketan denontzako benetako aldaketa-palanka bihurtzen laguntzeko.

Nola landu feminismo dekolonialaren ikuspegia garapenerako kooperazioan: esperientzia praktikoa eta gogoetak

Laura Vega, Euskadi-Bakea eta Elkartasuna

Rosa Vacacela, Sacha Supai Bioteknologiako Institutu Kitxua (Ekuador)

Nor gara: Euskadi-Bakea eta Elkartasuna – Sacha Supai Bioteknologiako Institutu Kitxua (Ekuador)

Hemen aurkituko gaituzu: <https://www.pazysolidaridadeuskadi.org>

Euskadi-Bakea eta Elkartasuna Euskal Herriko GGKE bat gara, eta urteak daramatzagu gure bazkide ekuadortarrarekin lanean, Sacha Supai Bioteknologiako Institutu Kitxuarekin (gaztelaniako siglak, IQBSS), beren eskubide kolektiboak betetzera bideratutako autonomia- eta autodeterminazio-prozesuetan lagunduz, kitxua nazionalitatea buru dela, Ekuadorko Pastaza probintzian. Lana lurraldearen defentsan, kontrolean eta erabileran kokatu da, petrolioaren estraktibismoak mehatxatuta, *Sumak Kawsay* (Ondo Bizi) pentsamendu filosofikoa eta praktika politikoa eraikitzekeo esparru gisa.

Sumak Kawsay, komunitateetatik beretik sortua, lurraldea defendatzeko tresna politikoa da, eta hori funtsezkoa da bizitzak ugaltzeko. Era berean, borroka politiko ontologikorako proposamena da¹, gure kosmobisio bitar eurozentrikoan ez bezala, harreman-ontologietan oinarritzen den antzinako kosmobisioa mantendu eta berreskuratu nahi baita. Hau da, bizitza erdigunean jartzen duen proposamena da, eta gizakien eta ez-gizakien arteko interdependentzian oinarritzen da².

Horrela pentsatua, *Sumak Kawsay*k Modernitatearen proiektuak ezarritako eredu desarro-

llista eta haren kolonialitate³, arrazismo eta patriarkatu formak oztopatzen ditu, sistema kapitalista globalaren zutabeak. Modernitatearen epistemea zalantzan jartzean, feminismo dekolonialarekin elkarrizketan hasten da, eta generoaren kolonialitatea ezartzeko moduari buruzko azalpenak eskatzen dizkigu⁴.

Testuinguru honetan, lurraldearen defentsa da emakumeen interes estrategiko nagusia; izan ere, erazte-politikengatik lurraldearen kontrola galtzeko mehatxuak mugatzen du *Sumak Kawsay*ren erabilera. Hala ere, komunitateekin proiektuak inplementatzeko orduan, emakumeek beti aktiboki parte hartu duten arren, sentitzen genuen gero eta zailtasun handiagoak genituela kooperazio sistemak feministatzat aitortutako estrategiak diseinatzeko eta ezartzeko edo genero-arrakala murrizteko. IQBSSren iritziz, generoaren kategoria separatista, bitxia eta inposatzailea zen, eta *Sumak Kawsay* gorde, indartu eta itzultzeko aukeraren aurka egiten zuen. Eta Euskadi-Bakea eta Elkartasunaren aldetik, ez zen ulertzen nola *Sumak Kawsay*tik bultzatutako estrategiak eraldatzaileagoak izan

3 Boterearen kolonialitatearen teoria Aníbal Quijano formulatu zuen, eta, ondoren, kontzeptuari heldu zioten intelektualek garatu eta zabaldu zuten; bira deskolonial deritzonaren parte dira intelektual horiek.

4 María Lugonesek garatu du “generoaren kolonialitatea” kontzeptua: “Hacia un feminismo decolonial”. Hypatian argitaratutako artikulua, 25. liburukia, 4. zenbakia (2010, udazkena). Gabriela Castellanosen gaztelaniaratu.

1 Ontologia filosofaren adar bat da, izatearen izaera aztertzen duena.

2 Conceptualización y perspectivas del *Sumak Kawsay* en el territorio. IQBSS, 2019.

Modernitatearen proiektuaren barruan garapenerako lankidetzaren oinarri izan diren esparruak zalantzan jartzera gonbidatzen dugu, eta garapenak eragin duen kaltea konpontzeko mekanismo bihurtzen hastera, ondorioz, lankidetzaren arrazakeriaren aurkako borroka gisa ulertzea ekarriko luke.

zitezkeen emakumeen bizitzarako beste estrategia feminista ezagun batzuk baino.

Hori dela eta, premiazkotzat jo zen generoa ulertzeko moduan sakontzea, Latinoamerikako tesuinguru indigenetako erreferenteen eta teoria feministen bidez. Horietan, “generoa” kontzeptua eta “genero-ikuspegia” asko eztabaidatu, zalantzan jarri eta berrikusi dira. Hala, 2018an, prestakuntza- eta hausnarketa-prozesu bat egin zen komunitateekin, Yuderlys Espinosa eta Carmen Cariño Latinoamerikako Ikasketa, Prestakuntza eta Ekintza Feministako Taldea (GLEFAS) elkarreko kideek lagunduta, eta horrek *Sumak Kawsay* indartuta baieztatzea eta hark gure erakundearen artean ulermen handiagoa izatea ahalbidetu zuen.

Gaur egun aitortzen dugu sentitzen genituen tentsioak “emakume” kategoriaren unibertsalizazioak eragindako generoaren kolonialitatea inposatzen saiatzearen ondorio zirela. Inposaketa horren adibide batzuk dira hauek:

- **Generoa kategoria isolatu gisa aztertzea:** errealitatean, aldiz, Amazoniako emakumeek beren eguneroko diskriminazio-esperientziei buruz hitz egiten dutenean, ez dute bereizten emakume gisa soilik edo berariaz indigena gisa jasaten dutenaren artean.
- **Zapalkuntzak azaltzeko genero kategoria baino ez erabiltzea:** hala ere, egiaztatu dute genero zapalkuntza beste zapalkuntza mota batzuekin lotuta dagoela, hala nola arrazarena, heterosexualitatearena eta klasearena. Hau da, desparekotasun-kategoriak aldi berean eragiten dute, elkarrekin existitzen dira eta berezkoak dira⁵.

5 Zapalkuntzen begirada ez segmentatzea emakume arrazializatu eta mendekoen ekarpena izan da, batez ere afro-estatubatuarrena, feminismo zuri hegemonikoari aurre egin baitzioten beren esperientzia zapalkuntza-ardatz bakar batek bakarrik ez zuela zeharkatzen adieraztean. Hortik sortu zen interseksionalitatearen kontzeptua, gerora feminista deskolonialek Abya Yalan funtsezko perspektiba gisa hartzen dutena.

- **Pastazako emakume kitxuen egungo egoera aztertzea, beren herriek bizi izan duten arrazakeriaren eta esklabotzaren historia guztia kontuan hartu gabe:** nolana ere, egungo genero harremanak indarkeria sortzen duten eta lurraldea patriarkalizatzen duten kolonialitate dinamika historikoen eraginpean daude. Egungo patriarkatua dinamika sozial, politiko eta ekonomikoetan islatu da, erakunde erlijio-soek, Estatuak eta gaur egun haiekin elkarreaginean diharduten beste garapen-eragile batzuek bultzatuta. Prozesu horretan balio sakoak galdu dira, edo modu negatiboan aldatu emakumeentzat.
- **Indarkeriak problematizatzeko garaian antzinako kosmobisioa kontuan ez hartzea:** pan-amazoniarrak sustraiko mito eta kontakizunek generoa markatzen duten esleipenak eta leku sozialak nola ezartzen dituzten aztertu da, eta horietako asko askatzaileak dira emakumeentzat. Beharrezkoa da kosmologia horietan sakontzen jarraitzea, horiek berreraikitze, berriro existitzeko eta zabaltzeko, generoaren kolonialitatearen aurrean, zeinak gorputzak kontrolatzeko eta menderatzeko modu berriak ezartzen dituen.
- **Borroka agendak ezarri edo iradokitzea:** emakumeek eta herriek jasaten dituzten indarkeria-mota desberdinen aurkako estrategiak hierarkizatze joera dugu, gure agenda feministen erreferente eurozentrikoetatik batzuk besteen gainetik lehenetsiz. Horrela, erresistentziak sortzen ditugu lurraldearen defentsa amazoniarrak emakumeen lehentasuneko interesa dela ulertzeko; izan ere, emakume horiek lurraldearen patriarkalizazioak fronte kolonial-estatal-estraktibistaren bidez sortzen dituen indarkeriei aurre egitea erabakitzen dute, are familia barruko indarkeriari baino lehen ere.
- **Errealitatea gure ikuspegi bitar eurozentriko-tik interpretatzea:** adibidez, *Sumak Kawsayren* bizi-printzipioei dagokienez, ohikoa da osagarritasun-printzipioa lanaren sexu-banaketaren kontzeptuarekin eta dualtasuna binarismoarekin nahastea. Era berean, espazio pribatua eta espazio publikoa bereizteko joera dugu, komunitateetan banaketa hori ez dagoenean.

Prestakuntza- eta hausnarketa-prozesuak ahalbidetu zuen jabetzea gaur egungo genero-harremanak dinamika kolonialetan eta antzinako kosmobisioan oinarrituta eraiki zirela. Genero-zapalkuntzari buruzko gogoeta *Sumak Kawsayren* ikuspegitik eta genero-kolonialitatearen azterketa batetik egin behar da; beraz, ez da feminismoaren

edo generoaren kontua, *Sumak Kawsayren* jardueraren kontua baizik, egunerokotasunean, egiturazko indarkeriatik libre.

Horri esker, erresistentzia komunitarioa eta lurralde kolektiboaren defentsa indartzeko estrategiak formulatu ahal izan dira. Bizitzari eusteko borrokaren subjektu politiko arduraduna ez dira soilik emakumeak, baizik eta herria osorik, eta hori gizonak bizitzaren zaintzaz arduratzeko modu bat da. Era berean, emakumeentzat askatzaileak diren antzinako ontologiak eta praktikak berreskuratzeko hainbat mekanismo identifikatu dira, eta lehentasuna eman zaie indarkeriei aurre egiteko eta horiek sendatzeko ahalmen handia duten antolaketa- eta lan-formei eta erabaki endogenoak hartzeko espazioei.

Esperientzia horretan oinarrituta, gure hausnarketetako batzuk partekatuko ditugu, feminismo dekolonialek proposatutako esparru teorikoa eta praktikoa garapenerako lankidetzan txertatzeko:

Lehenik eta behin, Modernitatearen proiektuaren barruan garapenerako lankidetzaren oinarri izan diren esparruak zalantzan jartzera gonbidatzen dugu, eta garapenak eragin duen kaltea konpontzeko mekanismo bihurtzen hastera. Horrek esan nahi du gure eskubide asko beste herri batzuen zapalkuntzaren eta esklabizazioaren kontura bermatzen zaizkigula, eta, ondorioz, lankidetzaren arrazakeriaren aurkako borroka gisa ulertzea ekarriko luke.

Horrek, ezinbestean, garapeneko agenda unibertsalistekin kritikoak izatera garamatza, horiek emakume izaera bizitzeko modu desberdinak ikusezin bihurtzen baitituzte. Era berean, gizarte-mugimenduetatik eta ezkerretik baliatzen dugun kolonialitatea zalantzan jartzea ere ekarriko luke, herrien proposamen politikoak ikusezin bihurtzen edo kooptatzen dituzten agendak sustatzeko orduan.

Horretarako, funtsezkoa da kolonialitateari eta arrazakeriaren aurkako feminismoei buruz prestatzea eta eztabaidatzea, hizkuntza komunak hitz egin ahal izateko. Adibidez, ohikoa da kolonialitatea kolonialismoarekin edo interseksionalitatea zapalkuntzen inbrikazioarekin nahastea, eta lotutako kontzeptuak dira baina ez baliokideak.

Komenigarria litzateke, halaber, testuinguruaren analisia egin ahal izatea, zapalkuntzen ko-eraketatik eta inbrikaziotik abiatuta, eta ka-

tegoriak bereizita aztertzea, hori baita Euskal Herriko lankidetzaren publikoak finantzaturako proiektuen zeharkakoak aztertzerakoan egin ohi duguna. Errealitatea askoz konplexuagoa da, eta subjektuen zatikatze horrek botere harremanen azterketa mugatzen du, talde jakin batzuen pribilegioak mantentzen lagunduz.

Azkenik, komunitate-ehuna indartzeko eta erresistitzeko estrategietan jarri nahi genuke arreta, estrategia horiek zenbait feminismok bultzatutako beste proposamen batzuk bezain eraginkorrak edo are eraginkorragoak izan baitaitezke bizitzari eusteko.

Eta aurreko hori, herri indigena eta afrikar ondorengoekin egindako lanaren kasu partikularrean, haien antzinako kosmobisioetatik egin behar da (erromantizatu gabe eta esentzializatu gabe), haien mundu erlazionalak eta borroka ontologikoak ezagutuz eta indartuz. Gure gizartei herri horien ekarpena aitortzea ez da justizia epistemikoko kontua soilik; bizitzak erdigunean jartzen dituzten paradigmak aldatzeko beste proposamen batzuk elikatzeko aukera ere bada, Modernitatearen proiektu zibilizatzaileari alternatibak proposatzen ari baitira.



Irudia: Laura Vega.

Izozmendia dinamitatzen ekonomia feminista lurraldetu batetik¹



Irudia: Tica Moreno.



Irudia: Amaia Pérez Orozco.

Tica Moreno: Soziologian doktorea da eta SOF Semprevisa Organização Feministako lantaldeko kidea. Bertatik, herri hezkuntzako, emakumeen antolaketako eta Latinoamerikako gizarte mugimenduen artikulazioko prozesuetan parte hartzen du. Ekonomia eta Feminismo Sarearen (REF) eta Emakumeen Mundu Martxaren koordinazioaren parte da Brasilen.

Leticia eta Yeni: Nola ulertzen duzue ekonomia feminista zuen borroka-lurralde bakoitzetik?

Tica: Nik SOFen esperientziatik hitz egiten dut, hau da, Emakumeen Mundu Martxaren parte den Brasilgo erakunde feministatik. Ekonomia feminista eraldaketarako borroka-tresna da guretzat. Horregatik uztartzen ditu pentsamendua eta ekintza, eta, gure kasuan, subjektu politiko batetik ekintzaren eraikuntzan datorren pentsamendua. Hau da, ekonomia feminista subjektu politikoei lotutako tresna bat da.

Amaia Pérez Orozco: Ekonomian doktorea. Colectiva XXK. Feminismos, pensamiento y acción kolektiboko kidea. Aktiboki parte hartzen du gizarte mugimenduetan. Feminismotik ekonomiari kritika sistemikoa egiten saiatzen da, beste begirada kritiko batzuekin lotuta. Bere lanen artean dago *Subversión feminista de la economía: aportes para un debate sobre el conflicto capital-vida* (2014, Traficantes de Sueños).

Ekonomia feminista herritarra, landatarra eta militantea da. Ekonomia feministaz ari garenean, hor dago eduki eta ikuspegi hori (ez zaigu beharrezkoa iruditzen beti adjektibatzea).

Sistema kapitalista, arrazista eta heteropatriarkalari aurre egiten ari gatzazkio. Garrantzitsua da hori esatea, inbrikazio hori ulertzeak gure borroka bideratzen duelako. Sistema ez da kapitalista bakarrik, arrazista bakarrik edo patriarkala bakarrik. Inbrikatuta eusten dio bere buruari, elementu horiek elkar indartu eta sakontzen dute, eta horregatik borroka antisistemikoa

¹ Orrialde hauetan, Tica Morenok (SOF Semprevisa Organização Feminista) eta Amaia Pérez Orozco (Colectiva XXK. Feminismos, pensamiento, acción) Sarrikon (Bilbo) egindako *Bestelako feminismoak eta bizitzaren iraunkortasuna* jardunaldietan, 2020ko otsailaren 27an, izandako solasaldia jasotzen da.

izan behar du. Sistema horri aurre egiteko, indar hori eraikiko duten subjektuak izan behar dira, subjektu kolektiboak eta askotarikoak, baina begiradak partekatzeke, posizionamenduak eta estrategiak eraikitzeke, borroka komunak mar-txan jartzeko gaitasuna dutenak.

Ekonomia feminista sistema horrekiko kriti-karen elementu garrantzitsuenak azaltzen laguntzen digun tresna da, eta horrek asko ekar-tzen dio erresistentziari. Funtsezkoa da herri hezkuntzako prozesuetan eta herri antolaketako prozesuetan, eta borrokatik abiatuta alternati-bak eraikitzeke gure proposamenak ere bidera-tzen ditu. Hori lotuta dago kontra-hegemonia eraikitzearekin, konkretutik abiatutako ekono-mia eraldatzeko praktika feministekin.

Azkenaldian, itzulpenen eta gure borroketan irakurri, eztabaidatu eta landu dugunaren ar-teko sintesiak eraikitzen aritu gara, bizitzaren iraunkortasunaren ikuspegia bultzatzen duten ekonomialari feministekin elkarrizketan neurri handi batean. Ikuspegi desberdin asko daude, baita kontraesankorrek ere, ekonomia femi-nistari dagokionez mundu osoan. Hizkuntzen arazoa dago, eta itzulpen zailtasunak, baina ekono-mia feministaren begirada eta posizionamen-duen kontua ere hor dago. Bai Iparraldeko herrialdeetan, bai Hegoaldekoetan, baita Latinoa-merikan ere, ikuspegi desberdinak daude. Nik hemen gure ikuspegiak hitz egiten dut, borroka antikapitalistan posizionatutakoaz. Gure meta-tuetatik bizitzaren iraunkortasunaren ikuspegia-rekin identifikatu gara, eta ikuspegi horren bai-tan eraiki ditugu sintesiak eta elkarrizketak, bai Latinoamerikan, bai beste kontinenteekiko ha-rremanean. Eta hori posible da posizionamendu eta begirada partekatu batetik: borrokaren ikus-pegi horretan aurrera egingo duten sintesi eta prozesuak eraikitzea, klabe internazionalistan.

Ekonomia feministan, dagoeneko ezagutzen dugun logika bat gertatzen ari da orain: NBE bezalako nazioarteko erakundeek diskurtso ba-ten zatiak txertatu dituzte, eta agendak anto-latu, metatu teoriko-politikoak izan dena asko despolitizatzeke. Prozesu horretan ekonomia feministaren planteamenduen zatiak txertatzen dira, eta arazo nagusia da hori subjekturik gabe datorrela, subjektu kolektiborik gabe. Batek be-giratzen badu hitzak onak direla baina atzetik subjektu kolektiborik ez dutela eusten eta bul-tzatzen, ez dago ondo, beste behin ere gertatzen baita existitzen den historia bat ezkutatzea, eta hori hainbat gaitan gertatu da, orain ekonomia

Ekonomia feminista eraldaketarako borroka-tresna da guretzat. Ekonomia feminista herritarra, landatarra eta militantea da.

feministarekin ere gertatzen den bezala. Bereziki antisistemikoa dena atera nahi izaten da subjek-tuak ateratzean, horiek baitira ikuspegi kriti-koak mantendu, bultzatu eta eguneratzen dituz-tenak. Orduan, begiratzen badiogu eremu mi-litante, landatar eta herrikoi horrek eraiki duen guztiari, garrantzitsua da esatea: han, Brasilen, ekonomia feminista badago jada. Izan daiteke batzuek aitortua ez izatea, baina hori eztabaida-ren eta prozesu politikoaren parte da.

Amaia: Nik nabarmendu nahi nuke nire ikus-pegia partziala dela, eta planetako metaketa-eremuetak *hemen* batean kokatuta dagoela. Hemen ekonomia feminista asko daude; batzen gaituena mugimendu feministatik, mugimen-du feministarentzat eta mugimendu feministar-en alde borrokarako tresna politiko gisa erabil-tzen ari garena da. Kapitalismoaren eta lanaren banaketa sexualaren aurkako ibilbide historiko oso batetik dator. Tresna politikoak den heinean, Ticak aipatutako bi zentzuetan balio du: bate-tik, feminista ez den sistema ekonomiko bat az-tertzeko eta salatzeke; eta, bestetik, pentsatzeko nola eraiki ekonomia egiteke beste modu bat, feminista, arrazismoaren aurkakoa, antikapazi-tista eta abar izango dena.

Borrokarako elementu nagusia merkatu, diru eta lan kapitalisten arreta-gunea aldatzea da, bizitzaren iraunkortasunerantz mugitzea. Inte-resatzen zaiguna da ulertzea eta salatzea siste-ma bat, bizi denari bere osotasunean erasotzen diona, beste sistema baten alde borrokatu ahal izateko, zeinean bizitza guztiek, bere aniztasu-nean, axola duten. Sistemarentzat zein bizitza diren garrantzitsuak, zein bizitza ez diren axola, zein bizitzari eusten zaion beste zein bizitzaren kontura eta nola... ulertzeko erronkari heltzen diogu. Eta bizitzari eusten dioten prozesu guz-tiak argitara ateratzeko erronkari, bai eta eraso egiten diotenak ere.

Ekonomia feminista horrek esparru propioa du *hemen*, Abya Yalako begiradekin lotura estuan eraikia, eta mundu angloan eta Europako gai-nerako lekuetan mugitzen denaz bestelakoa.



Irudia: Tica Moreno.

Esparru horrek sistemikoa izatea du ezaugarri: gaitasun handia du multzoari maila desberdinetan begiratzeko: *kanpoan* eta *urrun* dagoen *sistema handia*; bitarteko erakundeak eta bizitza zehatza: praktikak, sentipenak eta eguneroko eginbeharrak. Lotura horrek, begirada ez oso ekonomizista izanik, maitasun erromantikoaren edo amatasunaren dimensio ekonomikoa bezalako gauzak ikusteko aukera ematen digu. Ikuspegi antisistema bat ere bada, hain zuzen ere egiten duguna Modernitate kapitalista, heteropatriarkala eta kolonialista zalantzan jartzea baita, bizitzarekin gatazkan dagoena, eta batez ere heteropatriarkatuak eta kolonialismoak markatutako subjektu, lan eta mendeko esferetan oinarritzen dena.

Etorkizunari begira, funtsezkoa da begirada sistemikoa eta antisistema ez galtzea. Neoliberalismoari kritika egiten tematzeak, adibidez, ezin da ahaztu arazoa kapitalismoa bera dela. Zaintza-lanez hitz egiteko dugun moduak ere gaitasun kritikoaren eta begirada sistemikoaren galera hori izateko arriskua ekar dezake. Hori da zaintza-lanen nozioa gure begiradaren erdigunean jartzea saihesteko dugun arrazoietako bat. Terminoarekin dugun gaur egungo nahasmena dela-eta ere saihesten dugu. Batzuetan, hitza erabiltzen dugu nahiko genukeena adierazteko; beste batzuetan, esplotatutako lana adierazteko erabiltzen dugu. Zaintza-lanen

nozioaren edukia argitu behar dugu, eta esanahi desberdinak doitzera ahalbidetuko duten beste termino batzuk bilatu.

Esparru hori herrikoitasunetik eraiki da (Euskal Herrian ekonomia feministako eskolatxoak nabarmendu ditzakegu), eta harreman estuan dago Abya Yalarekin. Kapitala-bizitza gatazkarren, bizitzaren merkantilizazioaren eta sistemaren B aldearen nozioak, neurri handi batean, egiturazko egokitze programen aurkako borrokatik eta gau neoliberal luzetik etorri dira. Halaber, funtsezkoa da, etxeko langileen elkarte-mugimenduaren lanari esker, zaintza-lanen gizarte-antolamenduari buruz ikasitako gutzia, emakume migratuen presentziarekin berraktibatuta.

Hemengo ekonomia feministak ahultasun handiak ditu ahots hegemonikoetan; funtsean hiru lekutatik datoz horiek. Lehenik, oso begirada hiritarra izateagatik; adibidez, ordaindutako lanaren eta ordaindu gabekoaren arteko bereizketak ez du balio landa eremuko emakumeen alorra eta bizimodua pentsatzeko. Bigarrena, oso erdi-mailako klaseko begirada da. Adibide argia da zaintza-lanen krisiaren ikusmolde burgesa, kontziliazio arazoak salatzen dituen berriak balira bezala, langile klaseko emakumeek beti sentitu izan ez balituzte bezala. Eta, hirugarrenik, oso begirada zuria eta ipar-zentrikoa da, eta, adibi-

dez, zailtasun ugari ditu lanaren banaketa sexuala ere lanaren banaketa arrazializatu bat dela dioen baieztapen generikoaren benetako esanahia eta inplikazio politikoak ulertzeko. Ahulezia horiek, zalantzarik gabe, hor daude. Baina ez dira ekonomia feminista osoarenak; badira gai horiek lantzen ari diren eta ekonomia feminista egiten duten kide batzuk. Gehien entzuten den ekonomia feministaren zailtasunak dira.

Ekonomia feministak, hemen eta orain, ahultasun horiei heldu behar die, eta ez guk geuk salatu ditugun arazoei erantzun: unibertsaltzat jotzen den eta azalpen-ahalmen absolutua izan nahi duen esparru ekonomiko bat zalantzan jarri ondoren, dena azaltzen duen beste esparru bat eraikitzen saiatzeko arriskua dugu. Unibertsaltasun asmo hori agertzen da, adibidez, ordaindu gabeko lana neurtzea proposatzen dugunean, eta horrela jakitea zenbat *aberastasun* eta *lan* dagoen *benetan*. Nork esaten du zer den eta zer ez den lana? Askotan, ordaindu gabeko lanaz ari gara, Iparralde Globaleko etxekoandreen zeregin prototipikoak aipatzeko. Eta horiek ekonomia ofizialak ikusten ez zituen lanak dira, eta ikusi egin behar ditugu, baina zer beste uzten dugu kanpoan? Hori baino gehiago, benetan existitzen den askotariko ekonomia argitara atera behar dugu; eta sistema hegemonikoak forma ekonomikoen aniztasuna nola suntsitzen duen ikusi behar dugu, besteak beste, Iparralde Globaleko lan klasikoaren banaketa sexualean oinarritutako ekonomia egiteko modu bakar bat inposatzen baitu. Horrenbestez, proposamen politikoak kokatuta daude. Arazoa sortzen da zerbait errezeta bihurtzen duzunean eta esportatzen duzunean. Kasu argi bat izan da lana eta familia uztartzeko gaia, Abya Yalako emakumeentzat funtsezko elementu gisa eramana. Haiek askoren lan-esperientziek ez dute ordaindutako lanaren eta etxeko zaintza-lanaren arteko muga hori, eta, beraz, kontziliazio-proposamen horiek ez dute zentzurik.

Leticia eta Yeni: Zeintzuk dira zuen lurraldeetan ikusten dituzuen egungo sistemari buruzko gai kritikoak?

Tica: Koiunturari aurre egiteko erronka, nahi dugun eraldaketa egiturazkoenaren perspektiba galdu gabe. Ezin dut sistemaren gai kritikoiei buruz hitz egin orain Brasilen eskuin mutur autoritarioaren igoerarekin zer gertatzen den aintzat hartu gabe. Bizitza erdigunean jartzeaz ari gara, eta haiek egiten ari direna da bizitzari zuzenean eraso, esfera guztietan. Egungo une

Hemengo ekonomia feministak ahultasun handiak ditu ahots hegemonikoetan; oso begirada hiritarra izateagatik; oso begirada zuria eta ipar-zentrikoa. Baina ez dira ekonomia feminista osoaren zailtasunak. Gehien entzuten den ekonomia feministaren zailtasunak dira.

horretako marka bat da prekaritatearen orokortze hori, eta indarkeria zuzena lurraldeotan erresistitzen duen jendeari, hala indigenen eta lurrik gabekoen aurkako nola populazio beltzaren aurkako indarkeria poliziala, genozidio arrazista baten kopuruekin. Borrokan aritu nahian dabilen jendearen bizitza zehatzaz arduratu behar da, eta haien jendeak bizirik irautea bermatu. Orduan, bizitza erdigunean jartzea, zaila bada ere, horrek bermatzen du itxaropena, hortik ere eraikitzen ari baikara eusteko eta eraldatzeko aukerak.

Kapitalismo arrazista eta heteropatriarkalaren berreguneratzea dago. Ez da iraganera itzultzea. Metaketatik datorrenerako oinarriak finkatzen dira; gure gorputz, lurralde eta lanen gainean kapitala hedatzeko prozesu hori zabaldu eta sakontzen da. Espoliazioa da, lurrak bereganatzea. Korporazio transnazionalak lurraldeetan daude jendearen bizitza suntsitzen, agronegozioak, estraktibismoak, meatzaritzak aurrera egiteko. Eta borroka antikapitalistan, botere korporatiboaren aurka ere aliantzak eraikitzen ditugu. Transnazionalen aurkako borrokan nabarmentzen da meatzaritzak eragindako uraren eta lurren kutsadura; gure gorputzaren, gaixotasuna inposatzen duten eta osasuna sustatzen ez duten farmazialarien botiken eraginez. Beste behin ere, transnazionalen buruz haien *modus operandi*ari aurre egin gabe hitz egiten duten ekimenekin egiten dugu topo. Makillaje morearen estrategia hori bultzatzen dute enpresek, eta emakumeak “ahalduntzeko” proiektuak finantzatzen dituzte. Alderdi kulturala eta ekonomikoa artikulatzen dituen dimentsio bat da, neoliberalismoan ere bereizi ezin dena. Hori da eragile horiek emakumeen indarra harrapatzeko eta lurraldeetan erresistitzen duen duten herri antolaketa desaktibatzeke duten modua.

Brasilen, emakumeen portzentaje erraldoi batek, bereziki emakume beltzek, hirikoek eta landatarrek, ez dute prebentziorako zuzeneko ekarpenik egiten, lan informaletan daudelako; baina emakumeek ere eusten diote ekonomiari.

Demokrazien hauskortasun une horrek pribatizazio olatu bat ere bultzatzen du. Horri balazta jarri behar zaio, pentsio sistemetan kasu, kapitalizazioa inposatzen baita, zeinak belaunaldien arteko elkartasuna apurtu eta indibidualismoa inposatzen baitu. Brasilen, emakumeen portzentaje erraldoi batek, bereziki emakume beltzek, hirikoek eta landatarrek, ez dute prebentziorako zuzeneko ekarpenik egiten, lan informaletan daudelako; baina emakumeek ere eusten diote ekonomiari. Hori agenda feminista baten parte da, ekonomia feminista mugimenduan jartzen duena.

Amaia: Funtsezko kontu bat da sistema berrartikulatzeko unea ulertzea, ulertzeko, Ticak zioen bezala, nola ari diren gaurkotzen kontrol eta gabetze formak eta, horri lotuta, bizitzari eusten saiatzeko ditugun formak.

Eskandaluzko errealitate hori aldatzen ari da, behartuta, besteak beste, kolapso ekologikoagatik. Desazkundea saihetsezina da; materia, energia eta hondakin gutxiago sortuta bizi beharko dugu (pentsa dezagun Zaldibarren). Kontua da nola banatuko den desazkunde hori: sakonduko al da planetaren banaketa pilaketa-eremuen eta gabetze-eremuen artean, edo birbanaketa-desazkunde bati ekingo diogu? Ugalketa sozialaren krisiaren globalizazio une batean gaude. Bizitzako prekaritatea bizi-erregimen berri gisa ezartzen ari da gehiengoentzat, baina intentsitate oso desberdinekin lurraldeei eta horietan bizi garen subjektuei dagokienez.

Beste elementu kritikoa bat da argitzen saiatzea sistema hegemonikoak kolapso eta krisi une honetarako duen proiektua. Bi proiektu daudela saltzen digute: bata ona eta bestea txarra. *Proiektu txarra* Trump eta Bolsonarorena da, esaten diguna "hemen ez gara denak sartzen eta egingo duguna kanporatzea da; barruan geratzen denak ondo ordenatuta geratu behar du generoaren, arrazializazioaren, klase sozialaren arabera...". *Proiektu ona* da nazioarteko erakundeen koloretako neoliberalismoa. Eredu honetan sartzen garela esaten

duena oraindik ere; "denok irabazten dugu" bat da, eta, are gehiago, ziurtatzen digu zenbat eta eskubide sozial gehiago eta genero-berdintasun handiagoa, orduan eta hazkunde ekonomiko handiagoa egongo dela, eta alderantziz. *Proiektu txarraren* diagnostikoa zuzena dela aitortzera auzartu behar dugu: sistema honetan ez gara denak sartzen, are gutxiago emakumeak eta beste. Eta, hortik abiatuta, formak asmatu, ez kanporatzeko, baizik eta beste zerbait eraikitzeko, guztiok lekua izateko. Horretarako, sedukziora jokatzeko proiektu baten eta indarkeria esplizitua jokatzeko beste baten arteko jarraitutasun-haria argitu behar dira. Trumpek Mexikorekin duen harresiaren eta *Europa izeneko gotorleku horren* artean ez dago alderik.

Munduaren aldaketak nahitaezkoa izan behar badu, kontua da norantz jo. Proiektu hegemonikoei uko egiten badiegu, elkarrekin pentsatu behar dugu zer beste etorkizun nahi dugun. Nola izendatu utopia hori? Elkarbizitza on gisa izenda dezakegu, edo lur-gorputz lurralde gisa, Abya Yalako kideek izendatzen duten bezala? Ba al du zentzurik eraldaketa-horizonte horien zati bat hemen txertatzeak? Eta egin al daiteke jabe-kuntzakoa ez den logika batetik, kutsadurakoa den batetik baizik? Euskal Herrian, burujabetza feminista planteamendu indartsua da, lurraldean sustraitua, bizitza zehatz eta egunerokoan, egitura sozioekonomiko eta politiko guztiak birplanteatzera behartzen gaituena.

Utopiaz ari garenean, kontua ez da existitzen denarekin erabat zerikusirik gabekoa den zerbaitetan pentsatzea, baizik eta pentsatzea jada existitzen den apurrari jarraipena ematea, eskandaluzko gauza horrek suntsitu nahi duen horri. Zaintza-lanen gaira itzuliz, adibidez: hitz egin genezake zaintza errebeldeez, sistemarekiko errebeldean dauden eta sustatu nahi ginitzakeen zaintza moduez?

Azken batean, ulertu behar dugu badela sistema bat berrantolatzen ari dena eta aldaketa oso gogorak datozkigula, guk nahi edo ez, kolapso ekologikoari eta modernitate kapitalistaren krisiari lotuak; inposatzen den proiektu globalaren berri eman behar dugu; eta lurraldeka pentsatu behar dugu zer beste horizonte dauden eta nola bateratu ditzakegun.

Leticia eta Yeni: Nondik ari zarete ikusten, eraikitzen, alternatibak zeuen lurraldeetatik?

Tica: Alternatibak pluralak dira, ez dago bakarra edo testuingurutik aparte jarraitu beharreko

errezetarik. Proposamen zehatzak leku zehatzetatik garatzen dira, pertsona zehatzekin, jendeak arazo direla erabakitako arazoak konpontzeko, jendeak bere garaian aurre egin beharrekotzat jotzen dituen arazoak. Existitzeko eta eusteko moduekin erlazionatzen dira.

Eraikuntzan –ekonomia solidarioaren eta agroekologiaren eraikuntzan– ari gara lortzen, erresistentzia-une horretan, mugimenduak osotasun gisa behar duen energia ateratzea, eta ez esperientzia horietan zuzenean parte hartzen duten pertsonentzat soilik.

Puntu garrantzitsu bat merkantilizazioaren kritika da; eta autoantolaketatik eta herri prozesuetatik abiatuta, merkatu kapitalistatik aske dauden espazioak eraikitzea. Orduan, desmerkantilizazioak eta trantsizio-praktikek rol nagusia dute hor. Adibidez, Vale do Ribeira (SOFek jarduten duen São Pauloko eskualde bat) biodibertsitatean aberatsa den eskualde bat da, herri tradizionalak dituen, kilonboak, baina agronegozioak presentzia handia du, enpresa meatzarietako interesak dituzte eta lurraldeen inguruko borroka ere badago, ekonomia berdearen alde. Eta agronegozioaren ereduak bultzatu ditu bere teknikak, agrotokoen erabilera; beraz, emakume nekazarietako SOF aholkularitza prozesalean, funtsezkoa izan da trantsizio agroekologikoaren ikuspegia eta emakumeen praktika eta jakintza agroekologikoen arteko trukea. Trantsizio agroekologikoko prozesu horretan, beste prozesu batzuk lotzen dira, elkartasunak eta autogestioak bideratutako merkatuen eraikuntza sozialean, beste logika batzuetatik hiriarrekiko harremanak ezartzean.

Guretzat, funtsezkoa da alternatibak eraikitzekeko praktika eta prozesu zehatzak aldaketa sistemikorako gizarte-indarraren eraikuntzari lotzea. Eta oso adibide indartsua da *Marcha das Margaridas* deritzon mobilizazio masiboaren prozesua. Mobilizazio-prozesu luzea da, eta dozenaka mila emakume biltzen ditu, “landako, uretako eta basoetako” emakumeak, sintesi eta proposamen politikoak eraikitzen, indar sozialekoak, emakume autoantolatuetatik abiatuta, eta agenda oso posizionatua dutenak herrialdearen egoeraren une bakoitzean. *Marcha das Margaridas*era joaten diren emakumeen kontakizunak agerian uzten du indar artikulatua eraikitzekeko premia hori; izan ere, pertsona bat bere lurralde zehatzetik ateratzen denean, bertan praktika agroekologikoak eta erresistentziak garatzen ditu, eta eguneroko gauza berari aurre egiten dioten dozenaka

mila emakumerekin egiten du topo. Izan ere, toki bakoitzean egiten ari garenaren dimentsioa ere aldatzen du, askoz zentzu zabalagoa ematen dio, eta mugimenduan dauden emakumeen nortasun politiko hori ere osatzen du.

Borroka unean, martxetan, batukada eta kontsignen artean, indarra eraikitzen da, eta unean uneko esperientziak isolatzeko eta zatitzeko logika apurtzen da. Kontua ez baita alternatiben nukleo isolatuak eraikitzea, sistema aldatzeko indar kontrahegemonikoa baizik.

Amaia: Ekonomia hibridoaren bi modu eta borrokarako bi leku estrategikoko aipatu nahiko nituzke. Funtsezkoa da Ticak merkatu kapitalistatik aske dauden espazioak deitzen duena eraikitzea. *Bestelako ekonomiak* dei genitzakeen espazioak behar ditugu: hegemonikoa dena apurtzea lortzen duten ekonomiak, publikoaren eta arruntaren arteko zatiketa gaindituz eta harago joz, ordaindutakoaren eta ordaindu gabekoaren arteko banaketa, lanaren eta bizitzaren artekoa eta gisakoak hautsiz. Bata elikadura subiranotasunarena eta agroekofeminismoarena litzateke, Euskal Herrian bereziki indartsu dagoena. Oso indartsua da, lurrarekiko eta lurraldearekiko harreman guztiz desberdina proposatzen duelako; *fatalismo urbano* moduko horretatik harago pentsatzeko aukera ematen digulako (hirigintza geldiezina ez den beste etorkizun batzuk daude); azkenean, elikadura-katearen osotasuna berreraikitzean eredu sozial eta ekonomikoaren osotasuna berreraikitzen delako; eta metaketa-eremuetako eta planetaren hondar-eremuetako nekazarien feminismoetatik zubi indartsuak eraiki daitezkeelako. Beste bat da ekonomia sozial eta solidario eraldatzailearena. Lanak antolatzeko beste modu batzuk probatzeko, baliabideak banatzeko, erabakiak hartzeko, lana bizitzeko beste dimentsio batzuekin lotzeko, lana bere zentzu sozialekin lotzeko eta soldataren esklabo soilak ez izateko leku nagusia da... Oinarrizko esparrua da, eta are gehiago izango da lurraldeetatik zaintza-lanak berrantolatzekeko apustuarekin lotzea lortzen badugu.

Borroka estrategikoko sektore gisa bi aipatu nahi nituzke, biak ere sakonki ikusezin bihurtutako sektoreekin lotuak, zapalkuntzaren ardatz guztiak kondentsatzen dituztenak: langile klaseko emakumeak dira protagonista, gero eta emakume migratu eta arrazializatu gehiago. Batetik, adinekoen egoitzetako eta etxez etxekeko laguntzako zerbitzuetako grebak daude. Greba horiek ez dute beti feminismoaren bandera goratzen,



Irudia: Tica Moreno.

edo ez dute feminismoa lehen banderatzat hartzen. Guk, feminismoa lehen banderatzat dugunok, ez ditugu beti borroka propio eta lehentasunezko hartzen; eta egin beharko genuke, sindikalismoarekiko harreman osoa berrikustera behartzen gaituelako, Ticak ere aipatzen zuen moduan, bai eta lanaren sexu-banaketaren gainean eraikitako ongizate-estatuaren oinarriak berak ere.

Bestetik, etxeko enpleguaren borroka dago. Madrilen dauden kideekin hitz egiten genuen “etxeko enplegua agerian uzteaz”. “Etxeko enplegua duintzeaz” hitz egiten duten onkeriazko jarreretatik harago, zer egingo dugu horrekin? Kontua ez da soilik Lanaren Nazioarteko Erakundearen 189. hitzarmena onartzea; ezta jendea baldintza *onetan* kontratatzeagatik norbere buruarekin gustura geratzea ere. Kontua da hor dauden logika sakonak eztabaidatzea: bizitzari eusteko erantzukizunaren pribatizazioa; zeregin horiek gutxiestea, ahal duenak beste baten esku uzten baititu; morrontza, klasismoa eta arrazismoa; gizonen, enpresen eta erakundeen absentiak... Etxeko enpleguak ezin du jarraitu alfonbra baten moduan funtzionatzen, eta ezin dugu jarraitu horren azpian sartzen kolektiboki arduratu nahi ez dugun guztia, aipatu nahi ez dugun guztia. Lan horri buruz hitz egin behar dugu bere jarraitutasun eta etenetan. Duela urte batzuk, etxeko langileen elkarte-mugimenduko kideek ohartarazi ziguten lan hori ez zutela deskubritu soilik nazioarteko emakume migratzaileekin lotuta; esaten ziguten betidanik existitu zela eta

beti egon zela barne-migrazioari eta pobrezia lotuta. Eskandaluzko errealitate hori iritsi den leku guztietan ere existitzen da etxeko enplegua, eta ez bakarrik pilaketa guneetan. Hori guztia jarraitutasunak dira, baina etenak ere badaude. Nazioarteko migrazioak *paperak* zapalkuntzaren elementu nagusi bihurtzen ditu; eta morrontzaren logika kolonialista eta arrazista batek jada funtzionatzen zuen zaintza-lanen logika klasista eta heteropatriarkalarekin bat egitea dakar. Esparru horretan, zer egiten dugu etxeko enpleguarekin? Hor dugu funtsezko galdera bat: batzuek beste batzuen kontura lan-merkatuan arrakasta izateak ez duela inola ere arrakasta kolektibo gisa balio uste izatetik abiatzen gara. Zehatzago esanda, barneko etxeko enpleguari heltzeko premia dugu, zeina, lan egiteko modu esklabo gisa, gaur egun onartezina den.

Begirada interseksionalak. Bizitza bizigarri bat imajinatzeko tresnak

R. Lucas Platero: Gizarte Psikologia Saileko (UAB) Juan de la Cierva ikertzaile lana eta Bellaterra argitaletzeko editore lana konbinatzen ditu. Gainera, sexu- eta ugalketa-eskubideen aldeko ekintzailea da, bai eta akademiko nabarmena ere trans ikasketen arloan, eta argitalpen ugari ditu arlo horretan. Soziologian eta Zientzia Politikoen doktorea da (UNED) eta INIA Europako Proiektuko kidea (Intersex – New Interdisciplinary Approaches 2020-24).



Irudia: Lucas Platero.

Sarrera

Testu hau COVID-19aren pandemiaren ondorioak bizi ditugun bitartean idazten dut, estatuek haren ondorioei aurre egiteko neurriak hartu dituztenean. Nire kasuan, Madrilgo erdi-mailako klaseko etxe batean konfinatuta, bi urteko haur batekin eta nire familiako beste pertsona batzuekin, eta, hala eta guztiz ere, erosotasun *askorekin* gozatzen. Interseksionalitateari buruz pentsatzeak duen interes berrituaz pentsatzen dut, haren ikuspegi teoriko desberdinetatik, hain zuzen ere gaur egun, gure bizitzak pandemiak zeharkatzen dituenen.

Gure etxetan konfinatzeko esaten digute, ez irteteko eta distantzia soziala errespetatzeko; kalean ikusten den jende urriak maskarak eta eskularruak erabiltzen ditu... Eta berehala sortzen zaizkit galderak: eta etxea deitu ahal dioten tokiak ez duten pertsonak? Zer etxetan konfinatu, zer baldintzarekin? Zer gertatzen da mantenua bilatzeko etxetik irten behar duten pertsonekin, eta mesfidantza, isun eta irain biziz ikusten dituztenekin? Zer pertsona ari dira susmagarritzat jotzen? Nola da posible inork ez izendatzea haurren eskubideak? Nola imajina dezakegu adineko pertsonak baztergarriak direla edo Afrikan txertoekin esperimentatu beharko litzatekeela?

Sortzen diren galdera batzuk baino ez dira, baina zera ulertzea dakarte: arrazismoa, klasismoa, aporofobia, sexismoa eta beste bazterketa modu batzuk ez direla modu isolatuan existitzen, baizik eta elkarrekin lotuta, eta ondorio oso zehatzak dituztela gure bizitzetan.

Testu honekin, bizitzen ari garen bezalako bizi-egoera garrantzitsuetan pentsatzeko tresnak izateko beharra kokatu eta artikulatu nahi dut, ez bakarrik onanismo ariketa teoriko eta hutsala egitea. Alde horretatik, interseksionalitateak agerian uzten du kolektiboki pentsatu behar dela gure bizi-baldintzei buruz. Tresna kontzeptual hori beste proposamen kritiko batzuekin batera bizi da, hala nola homonazionalismoarekin edo ekopostureoarekin, sortu berri diren kontzeptu argigarri batzuk izendatzearen (Platero, Rosón, Ortega; 2017). Esku artean duzun testua hiru epigrafetan antolatuta dago, eta lehenengoak interseksionalitatearen definizio posible bat du ardatz, izan daitezkeen ikuspegi teorikoak kontuan hartuta. Bigarren epigrafeak ikuspegi horrek zer ematen digun aztertzen du, adibide batzuk jarritz. Eta hirugarrenak kontzeptu horren kritikak eta mugak dauzka.

Interseksionalitateak agerian uzten du kolektiboki pentsatu behar dela gure bizi-baldintzei buruz.

1. Interseksionalitatea: kontzeptu baten historia

Aldiberekotasuna, sistema dualak, bidegurutzeak, interseksionalitatea, diskriminazio bikoitzak eta hirukoitzak, menderatze-matrizeak, zapalkuntzako sistema gurutzatuak, diskriminazio anizkoitza, zapalkuntza-sistemen interdependentzia, bilbadurak, irazkiak, zapalkuntzaren osaketak, asaldurak eta mihiztadurak. Hirurogeiko hamarkadatik hona errealitate gorpuztu bati erreferentzia egin ahal izateko erabili diren terminoetako batzuk baino ez dira: pertsonak hainbat gizarte-antolatzailearen bidez zeharkatuta eta eratuta gaude; horietako batzuk dira generoa, etnia, klasea, sexu-orientazioa eta genero-identitatea, aniztasun funtzionala, jatorri nazionala eta zerrenda baten amaieran oso maiz galtzen diren beste batzuk (Butler; 2007: 278-274). “Naturalak” izatetik oso urrun, kategoria horiek sozialki eraikitzen dira, eta elkarren artean erlazionatuta daude; horrela, kategoria horiek zeintzuk diren deskribatzera mugatzen ez den azterketa bat ahalbidetzen da, eta emandako egoera pertsonal eta egiturazkoetan zer rol jokatzaren duten ulertu eta artikulatu behar da, erresistentziako prozesuak erraztuz, baina baita zaugarritasunekoak ere (Platero; 2012).

Termino horiek zapalkuntzen aldiberekotasunaren egoera gordin horri buruzko ikuspegi desberdinei egiten diete erreferentzia, eta, Yuderkys Espinosak dioen bezala, “izendatzeko saiakera horietako bakoitza aurreko proposamenen bidez zirriborrazteko lortzen denarekin bat ez etortzearen isla da” (2014; 21). Agerian uzten dituzte desadostasun eta bilakaera kontzeptualak, emakumearen zapalkuntzari erreferentzia egiten diotenak, zapalkuntza desberdinak (zapalkuntza bikoitzak, hirukoitzak, anitzak?) deskribatzen eta baieztatzen dituzten metaforetan ibiliz, geroago opresio horiek nahastuta daudela ulertzeko, eta testuinguru jakin batean haien funtzionamendua xehatzeko. Subjektuaren ideia unibertsal bati aurre egin ahal izatea da abiapuntua, kategoria homogeneousatzaile gisa, hau da, emakumeak, afro-espainiarrak, haurtzarora... Behar komunak dituzten gizarte-taldeak dira ala ezberdintasunak dituzte? Zalantzan jartze horiek ez dira soilik feminismoaren subjektu politikoaren inguruan

sortzen, baizik eta mugimendu sozial guztietan, kategoria sozial horiek modu pluralean ulertu behar diren kontzientzia batekin. Hirugarren olatuko eta beste gizarte-mugimendu batzuetako feminismoa igarotzearen zati bat da, hala nola, arrazismoaren aurkakoa, dibertsitate funtzionalarekin eta sexualitatearekin kritikoak diren teoriak, dekolonialak eta abar. Subjektuaren ideia unibertsal horrek biztanleriaren zati baten esperientziak eta jakintzak bultzatzen zituelako kontzientziarekin ere lotuta dago, pribilegioak izateko egoeran baitzeuden, periferian mantentzen ziren beste ahots batzuen aldean, askotan ikusezin bihurtuak.

Interseksionalitatearen sustraiei buruz, Davina Cooperrek (2004) esango du hirurogeiko hamarkadako feminismo sozialista eta marxistek jada kontzeptualizatu zituztela “sistema dualak”, bi diskriminazio-iturriren arteko erlazioa, klase soziala eta patriarkatua. Hala ere, ikuspegi horiek arrazismoaren ondorioak ahazten zituzten, interseksionalitatearen sustrai iparramerikarretan agerikoagoa den kritika bat, zeinean Combahee River kolektiboaren lan aitzindariak nabarmentzen diren “Manifestu Feminista Beltza” (1977) lanarekin, eta Kimberlé Crenshawren lan akademikoarekin (1989, 1991). Ekarpene horien ondorioz, emakume beltzak feminismitik kanpo geratu ziren, emakume zurien eta erdi-mailako klasekoen arazoetan oinarritutako agenda baten alde egin zutelako, eta, aldi berean, emakume beltzek ez zutelako behar besteko aitorpenik arrazakeriaren aurkako mugimenduan (Mohanty; 2004). Ildo horretan, Angela Davisek (1981) ohartarazi zuen arrazismoak eta kapitalismoak borroka feministan duten pisua kontuan hartu behar zela. Kimberlé Crenshaw (1991) eta Patricia Hill Collins (1989) egileek, berriz, interseksionalitatea botere forma ezberdinen elkarrekintzari buruzko metafora gisa ulertzen zuten, teoria estrukturalisten ontologia bati jarraituz.

Ikuspegi hori Europako feministek berreskuratu zuten, interseksionalitateari teoria eta metodologia estatusa emanez. Interseksionalitatearekiko interes hori jaso eta ikuspegi konstruktzionista bat osatu zuten Stuart Hallek (1980, 1992), Paul Gilroyk (1987), Avtar Brahekk (1996), Nira Yuval-Davisek (2006) eta Flora Anthiasek (1992), besteak beste, ikasketa kulturalen barruan kokatua (Romero Bachiller; 2010: 14-15). Ikuspegi horren helburua botere-harremanak eta horien dinamikak erlazionalak direla erakustea litzateke, subjektu-

botasuna nabarmenduz eta pertsonen identitateen mugak gainditzen ditugula azpimarratuz. Interseksionalitatearen bidaia transatlantikoa sustrai estrukturalistak dituen kontzeptu gisa deskribatu ohi da (bereziki feminismo Beltzean); Estatu Batuetan, ikuspegi estrukturalista izena hartzen du, eta Europan konstruktzionista (Carbin eta Edenheim; 2013: 235).

Jasbir Puarren ustez, eta ikuspegi iparramerikarrean ez bezala, Europako beste ikuspegi batzuetan arrazari buruzko gaiei heltzeko interesa berandu ikusten da, eta horrek agerian uzten du, gainera, lotura dagoela emakumei buruzko azterlan iparramerikarrekin, eta Europako politika publikoetan eragina dutela, azterlan feministek askotan jorratu dituzten eztabaiden bidez (Puar; 2011). Gainera, Europako azterlan horietan, askotan, behin eta berriz nabarmendu da kategorien arteko inkongruentziei eta desberdintasunei erreparatzen zaiela, eta eztabaidarako bidea ireki da desberdintasun horien arteko hierarkiak nola eta noiz ezarri behar diren eta noren kontura.

XXI. mendera iristean, interseksionalitateak ikusgarritasuna irabazi du analisi feministetan, eta bere burua paradigma globalaren aldaketa gisa aurkezten du. Leslie McCall (2005) egilearentzat, besteak beste, interseksionalitatearen helburua da ikerketa feminista osorako leku komun bat sortzea, hiru konplexutasun motatan sailkatuz (interkategorikoa, intrakategorikoa eta antikategorikoa), azterlan interseksionalizat hartzen denaren eremua zabalduz. Ikuspegi horiek adostasun feminista bat bilatzen dute, kategoria batean baino gehiagotan pentsatzean oinarritutako analisi oro lotuz, eta horrek,aldi berean, eztabaida kritikoen espezifikotasuna eta lautasuna nolabait hustea dakar, eta, gainera, diskriminazio-foku bakar batean zentratutako analisiari zilegitasuna kentzen dio (Carbin eta Edenheim; 2013: 236).

Espainiako estatuan feminismoa aitzindaria da diskriminazioen aldiberekotasuna esploratzen, literatura griseko itsaso batean (liburuxkak, jardunaldiak, elkarrizketak, kontakizunak eta abar) arakatzen zailak diren ekarpenekin. Talde ekintzaileak ez ezik, besteak beste, generoari, desgaitasunari, immigrazioari, gazteriari edo etnari buruzko “diskriminazio bikoitz edo anizkoitzeko” egoerak ikusarazten dituzten erakundeak ere badaude. Gizarte-mugimenduak eta akademia izan dira diskriminazio anizkoitzarekiko interes hori sortu dutenak, eta pixka-

Subjektuaren ideia unibertsal horrek biztanleriaren zati baten esperientziak eta jakintzak bultzatzen zituelako kontzientziarekin ere lotuta dago, pribilegioak izateko egoeran baitzeuden, periferian mantentzen ziren beste ahots batzuen aldean, askotan ikusezin bihurtuak.

naka interseksionalitateari buruzko begirada konplexuagoa bihurtu da. Ekoizpen horrek argi eta garbi eragiten du Europar Batasunaren testuinguruan, bai eta azterlan postkolonialetan, *queer* azterlanetan, dibertsitate funtzionalari buruzkoetan eta abarretan ere. Azterlan horiek ezagutzari buruzko ikuspegi postestrukturalista erakusten dute, eta ikuspegi interseksionalari buruz hitz egiteko aukera ematen dute. Dolores Juliano, Verena Stolcke, Raquel Osborne eta beste hainbat egileren ibilbide akademikoa “beste emakumeen” bizi-baldintzetan oinarritu da.

Abya Yalatic (Latinoamerika), zapalkuntza anitzen esparru horretan lan emankorra egiteaz gain, kritika dekolonial sakona ere egiten da, eta interseksionalitatearen teoriak dituen oztopo epistemologikoak gainditzera deitzen dute, beste ikusmolde batzuk erabiltzea hobetsiz, hala nola korapilaketak, bilbea eta irazkiak (Lugones, 2008), ehuntze-lanaren berezko hiztegia aipatuz; izan ere, ehun bati begiratuz gero, elementuak bat eginda daude eta banaezinak dira. Zapalkuntzaren elkarren arteko osaketei buruz, honako hau diote:

Arraza, generoa eta sexualitatea elkarrekin osatzen dira. Generoaren arabera kolonizaziotik kolonialitatera igarotzeak boterearen sistema global kapitalista osatzen duten harremanen konplexutasuna du ardatz (menderakuntza. Esplotazioa). Feminismo dekolonialaren analisi eta praktiketan, “araza” ez da generozapalkuntzarekiko bereizgarria, ezta bigarren mailakoa ere, baizik eta elkarrekiko eratzailea (Lugones: 2012; 134)

Kritika diskriminazioaren teorizaziora hedatzen da, izan ere: “kategoriak eta pentsamendu kategoriala zapalkuntza-tresnak dira” (Lugones; 2005: 68) eta “zapalkuntzen gainjartzea

edo elkargunea kontrol-, murrizketa-, immobilizazio- eta deskonexio-mekanismo bat da” (Lugones; 2005: 69). Korapilaketen nozioek eta pertsonak eratzen dituen zapalkuntzen eta erresistentzien arteko interdependentzia-erlazioarenek, Audre Lordek egindako proposamenen ildotik, hobeto adierazten dute, haren iritziz, zapalkuntzen kontzeptualizazioa (Espinosa; 2014: 21). Gainera, subjektu hegemonikoaren jarraitutasuna eta ezagutzaren subjektu izan daitezkeen baina hura ekoizten ez duten mendeko ahotsen bazterketa salatzen dute, hainbat egileren lan kritikoa aitortuz, hala nola Sueli Carneiro, Jurema Werner, Luisa Bairros, Ochy Curiel, Aura Cumes, Gladys Tzul, Silvia Rivera Cusicanqui, Yuderlys Espinosa eta María Lugones (Espinosa; 2014b: 31).

2. Zer ematen digu ikuspegi interseksional horrek? Praktikan jartzearen adibide batzuk

Politika publikoen esparruan edo aktibismoan, adibidez, interseksionalitatea praktikan jartzeak galdera garrantzitsuak sortzen ditu; esate baterako, desberdintasun baten inguruan (generoa edo desgaitasuna, adibidez) elkartzaren diren pertsonentzako zerbitzu edo espazio espezifikoak ixtea dakar? Nire ikuspuntutik erantzuna ezezkoa da. Kontua da ondo doitzea diskriminazio-moduei buruzko gure ezagutza eta eskuhartzean zer esperientzia dugun. Zerbitzu eta ekintza zehatzak bateragarri egitea dakar, ekintza publikoaren gaineko erantzukizun zuzena eta haren ikusgarritasuna gauzatuz, bai eta arrazismoak edo adinkeriak, adibidez, beste diskriminazio-modu batzuek bestelakoak diren ondorio espezifikoak aitortzea ere.

Gizarte-talde baten barruko aniztasunari erreparatu diezaioke, adibidez, emakumei edo haurrei. Halaber, elementu komunei erreparatzea dakar ekintzak, planak edo legeak proposatzen direnean, adibidez, sexismoaren eta LGTBfobiaren ondorioei buruzko sentsibilizazioa pentsatzeko orduan (ikus Feminismoen eta LGTBen Zinegotzigoak Bartzelonako Udalean egiten duen lana). Hirugarren ikuspegi bat arazoetan (eta konponbideetan) zentratzea da, pertsonen nortasunei erreparatu beharrean. Adibidez, izena aldatu ahal izateko beharra ez badago lotuta trans izatearekin edo ez izatearekin, espainiarra izatearekin edo ez izatearekin, adinez nagusia izatearekin edo ez izatearekin, baizik eta pertsona askok izena aldatu behar

izatearekin, ikuspegi bestelakoa izango litzateke. Horren ondorioz, beste hurbilketa bat da gizarte zibilaren hainbat arlotako aliantzak sortzea dau den arazoei aurre egiteko, borroka partikular gisa bideratu beharrean. Eta, azkenik, beste begirada batek esan nahi du interseksionalitatea politika, erakunde edo esparru batean inplikaturako pertsona guztiak gogoan hartzen dituen ikuspegi gisa aplikatzea, Terrassako Udalak, adibidez, gaur egun egiten duen bezala.

Halaber, begirada interseksionala erabiltzen da prozesu diagnostiko parte-hartzaileak egiten direnean, hala nola:

- *Miradas: mujeres, diversidad funcional y multidiscriminación. Guía para la detección de violencias contra las mujeres leídas como discapacitadas*¹.
- *Diagnóstico Participativo de las problemáticas que presentan las personas TLGBQI en salud sexual reproductiva y derecho al ejercicio de la identidad en el municipio de Madrid*².

Beste arlo garrantzitsu bat Auzi interseksionalen erabilera izaten ari da, esate baterako, Sekretariado Gitano fundazioak³ María Luisa Muñoz Díazen eskubideen defentsan eta Women’s Link-ek⁴ Beauty Solomonen defentsan abiarazitakoak. Adibide batzuk baino ez dira, baina gaur egun dagoen aplikazio praktikoa zehatza ikusten lagundu dezakete.

3. Interseksionalitate kontzeptuaren kritika eta mugak

Interseksionalitateari egindako kritika batzuk Mendebaldeko testuinguru bati lotutako tresna gisa erabiltzetik datoz, eta hori gailentzen da ezagutzaren ekoizpenak Hegoalde Globalean dituen espezifikotasun eta ezaugarri herritarren gainean (Mohanty; 1991). Beste kritika batzuek zerikusi handiagoa dute edukia hustearekin eta

1 Candelas Tejada, Sandra eta Graciela Mulet López (2018). “Mujeres, diversidad funcional y multidiscriminación”. *Journal of Feminist, Gender and Women Studies*, 7, 45-5. or

2 <http://www.madridsalud.es/pdfs/TLGBQI.pdf>

3 <https://www.gitanos.org/que-hacemos/areas/igualdad/litigio.html>

4 <https://www.womenslinkworldwide.org/observatorio/estrategia/litigio-multiple>

haren sustrai erradikalak ahaztearekin, kontzeptu hori modu liberalean txertatu delako egungo eztabaida eta politiketan. Kritikoki salatu da egile batzuek teoria berri bat izateko egiten duten promesa hutsala ere (Brah eta Phoenix; 2004), egungo eztabaiden konplexutasuna atzemateko gai dena (McCall, 2005, 1773. or.), feminismoan dauden zatiketak gainditzera daramana (Hancock; 2007b: 67). Era berean, adierazi izan da gizarte-kategoriak ez direla, nolabait, pertsonen aurretik zeudenak, baizik eta kategoria horietan daudenak, eta bata bestetik bereizi daitezkeela. Hau da, kontua ez dela identitateak sortzea eta izendatzea, esparru sozial edo politiko batean horiek aitortzeko borroka egitea, edo identitateak beraiek finkatzea, baizik eta botere-harremanen azterketa gisa duten balio politikoa berriro hartzea; Jasbir Puarrek interseksionalitatea eta mihiztadura bereiztea proposatzen du:

“Interseksionalitateak identitatea jakin, izendatu eta, horrela, espazioan eta denboran egonkortzea eskatzen du, identitatearen ardatz desberdinen arteko baliokidetasunaren eta analogiaren logikan oinarrituz, identifikazioaren alderdi faltsuak eta performatiboak ukatzen dituzten aurrerapen-narratibak sortuz: identitate bat bihurtzen zara, bai, baina denboraz kanpo ere funtzionatzen du, espazio bakoitzean identitate egonkor eta konstante baten fikzioa finkatzeko” (Puar; 2007: 212).

Kritikatzen du, halaber, asko erreparatzen diegula desberdintasunei eta salbuespenei, kritikatzeko dugun subjektu hegemoniko horri buruz pentsatzen jarri beharrean. Zehazki, interseksionalitatea subjektu politiko jakin batean finkatu da bereziki, «koloreko emakumeak» izenekoan, edukiz hustu dela dirudien eta, aldi berean, oso modu zehatzetan erabili den kategoria batean. Nahi gabe, «Beste» bat sortzen laguntzen dugu, «koloreko emakumea» izan behar duena, beti subertsiboa eta beti borrokan (Puar; 2011), pertsona zuria eredu gisa kokatzen jarraitzen duena.

Azkenik, adierazi nahi nuke interseksionalitatea balio onez jositako tresna gisa aurkezten dela, zeinak nekez diren kritikagarri, edo “moduren batean edo bestean” gauzatzen direla argudiatzeko modukoak. Hitz bat, interseksionalitatea adibidez, ezagun bihurtzen denean, hainbeste esanahi ditu non zehaztugabea bihurtu daitekeen. Eta, hain zuzen ere, haren esanahia irekia eta ez-

Hitz bat, interseksionalitatea adibidez, ezagun bihurtzen denean, hainbeste esanahi ditu non zehaztugabea bihurtu daitekeen. Eta haren esanahia irekia eta ez-preskriptiboa izateak eragiten du ko-hautagarria izatea, hau da, zenbaitek erabili nahi du haren erabilerak eta aplikazio praktikoak dakarren iraultza eta eraldaketa ulertu nahi izan gabe.

preskriptiboa izateak eragiten du ko-hautagarria izatea, hau da, zenbaitek erabili nahi du haren erabilerak eta aplikazio praktikoak dakarren iraultza eta eraldaketa ulertu nahi izan gabe. Norbaitek esan dezake “azterketa interseksionala” egiten ari dela eta diskriminazioa ez erreproduzitzen saiatzen dela, “diskriminazioak elkarri lotuta” daudela gaineratuz, baina serio hartu gabe, adibidez, sexismoak transfobiarekin, arrazismoarekin, xenofobiarekin edo klasismoarekin dituen loturak (Carbin eta Edenheim; 2013: 245).

Bibliografia

- Brah Avtar eta Ann Phoenix (2004): “Ain't I a woman? Revisiting intersectionality”, *Journal of International Women's Studies* 5(3), 75-86. or.
- Butler, Judith (2007): *El género en disputa. El feminismo y la subversión de la identidad*, M^a Antonia Muñozek gaztelaniaratu, Paidós, Bartzelona.
- Carbin Maria eta Sara Edenheim (2013): “The intersectional turn in feminist theory: A dream of a common language?”, *European Journal of Women's Studies*, 20(3), 233-248. or.
- Combahee River Collective (1977/2012): “Un Manifiesto Feminista Negro”, *Intersecciones. Cuerpos y sexualidades en la encrucijada*, R. Lucas Platero (ed.), Bellaterra, Bartzelona, 75-86. or.
- Cooper, Davina (2004): *Challenging diversity: Rethinking equality and the value of difference*, Cambridge University Press, Cambridge.

- Crenshaw, Kimberlé (1989): "Demarginalizing the Intersection of Race and Sex: A Black Feminist Critique of Antidiscrimination Doctrine", *Feminist Theory and Antiracist Politics*. University of Chicago Legal forum, Chicago, 139-167. or.
- (1991/2012): "Cartografiando los márgenes. Interseccionalidad, políticas identitarias, y violencia contra las mujeres de color", *Intersecciones. Cuerpos y sexualidades en la encrucijada*, R. Lucas Platero (ed.), R. Lucas Platero eta Javier Sáezek gaztelaniaratu, Bellaterra, Bartzelona, 87-122. or.
- Davis, Angela (1981): *Women, Race and Class*, Random House, New York, NY.
- Delphy, Christine (1970): "L'ennemi principal", *Partisans*, 54-55, 157-172. or.
- Eisenstein, Zillah (1979): *Capitalist Patriarchy and the Case for Socialist Feminism*, Monthly Review Press, New York.
- Espinosa, Yuderlys (2014): "Pensando la academia feminista desde una mirada co-constitutiva de la opresión", *Nuevos Desafíos para la Inclusión Social y la Equidad en la Educación Superior. Actas del III Congreso Internacional MISEAL*, Montserrat Rifa Valls; Duarte Campderrós, Laura eta Maribel Ponferrada Arteaga (ed.), Berlin.
- Gilroy, Paul (1987): *There Ain't No Black in the Union Jack*, Routledge, Londres eta New York.
- Hall, Stuart (1980/2002): "Race, articulation and the societies structured in dominance", *Race Critical Studies*, Philomena Essed eta David Theo Goldberg (ed.), Blackwell, Oxford, 36-68. or.
- (1992): "New Ethnicities", «Race», *Culture and Difference*, James Donald eta Ali Rattansi (ed.), Sage, Londres, 252-259. or.
- Hancock, Ange Marie (2007a): "Intersectionality as a normative and empirical paradigm", *Politics and Gender* 3(2), 248-254. or.
- Hancock, Ange Marie (2007b): "When Multiplication Doesn't Equal Quick Addition: Examining Intersectionality as a Research Paradigm", *Perspectives on Politics*, 5 (1), 63-79. or.
- Hartmann, Heidi (1980): "The Unhappy Marriage of Marxism and Feminism: Toward a More Progressive Union", *Women and Revolution*, Lydia Sargent (ed.), South End Press, Boston, 1-41. or.
- Hill Collins, Patricia (1989): "It's all in the family: Intersections of gender, race, and nation", *Hypatia* 13(3), 62-82. or.
- Lugones, María (2005): "Multiculturalismo radical y feminismos de mujeres de color", *Revista Internacional de Filosofía Política*, 25. Universidad Autónoma Metropolitana-Iztapalapa, Mexiko, 61-76. or.
- _____ (2008): "Colonialidad y género", *Tabula Rasa*. Bogota - Kolombia, 9, 73-101. or.
- _____ (2012): "Subjetividad esclava, colonialidad de género, marginalidad y opresiones múltiples", *Pensando los feminismos en Bolivia*, HHAA, Serie Foros 2, Conexión Fondo de Emancipaciones, La Paz, Bolivia, 129-149. or.
- McCall, Leslie (2005): "The complexity of intersectionality", *Signs*, 30 (3) 1771-1800. or.
- Mohanty, Chandra Talpade (1991): "Under Western Eyes: Feminist Scholarship and Colonial Discourse", *Third World Women and the Politics of Feminism*, Chandra Talpade Mohanty; Russo, Ann eta Lourdes Torres (ed.), Indiana University Press, Indianapolis, 51-80. or.
- _____ (2004): *Feminism without Borders*, Duke University Press, Durham, NC.
- Platero, R. Lucas (ed.) (2012): *Intersecciones. Cuerpos y sexualidades en la encrucijada*, Bellaterra, Bartzelona.
- Puar, Jasbir (2007): *Terrorist Assemblages. Homonationalism in Queer Times*, Duke University Press, Durham eta Londres.
- (2011): "«I would rather be a cyborg than a goddess»: Intersectionality, Assemblage, and Affective Politics". Online eskuragarri: <<http://www.eipcp.net/transversal/0811/puar/en>> (azken kontsulta, 2017ko apirilaren 12an).
- Bachiller, Carmen (2010): "Indagando en la diversidad: un análisis de la polémica del hiyab desde el feminismo interseccional", *Revista de Estudios de Juventud*, 89, 15-38. or.

Platero, R. Lucas; Rosón, María eta Esther Ortega (2017): *Barbarismos queer y otras esdrújulas*, Bellaterra, Bartzelona.

Walby, Silvia (1986): *Patriarchy at work: patriarchal and capitalist relations in employment*, Polity Press, Cambridge.

(1988): "Segregation in Employment in Social and Economic Theory", *Gender and segregation at Work*, Open University Press, Milton Keynes, 14-28. or.

Young, Iris Marion (1990): *Throwing Like a Girl And Other Essays in Feminist Philosophy and Social Theory*, Indiana University Press, Bloomington, IN.

(1992): "Five Faces of Oppression", *Rethinking Power*, Thomas Wartenberg (ed.), SUNY Press, Albany, NY, 37-63. or.

Yuval-Davis Nira (2006): "Intersectionality and feminist politics", *European Journal of Women's Studies* 13(3), 193-209. or.

Yuval-Davis, Nira eta Flora Anthias (1992/2002): "Raza y género", *Razas en conflicto, Perspectivas Sociológicas*, Eduardo Terrén (ed.), Anthropos, Bartzelona, 250-262. or.